

NAZIOARTEKO ERANTZUKIZUN PENALAREKIKO ALTERNATIBOAK DIREN BIDEEN AZTERKETA KRITIKOA: RUANDAKO GACACA AUZITEGIAK EREDU

Gradu Amaierako Lana


Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea

Gradu Bikoitza

2023/2024 Ikasturtea

Egilea: Asier Idoiaga Zabala

Zuzendaria: Oscar Abalde Cantero



AURKIBIDEA

LABURDURAK.....	2
1. SARRERA.....	3
2. GENOZIDIO OSTEKO RUANDAR SISTEMA JUDIZIAL HIRUKOITZA.....	4
2.1 Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala (RNAP).....	5
2.2 Ruandar Jurisdikzio Arrunta.....	8
2.3 GACACA Jurisdikzioa.....	10
3. TUTELA JUDIZIAL EFEKTIBORAKO ETA BIDEZKO PROZESURAKO ESKUBIDEAK.....	12
3.1. Babes Judizial Eraginkorra Espainiar Ikuspegitik: Lege nazionala eta nazioarteko arauak.....	12
3.2. Babes Judizial Eraginkorra Ruandar Ikuspegitik: Lege nazionala eta nazioarteko arauak.....	16
4. GACACA JURISDIKZIOAREN AZTERKETA BIDEZKO PROZESUAREN IKUSPEGITIK.....	19
4.1 Auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek epaitzeko eskubidea.....	19
4.2 Defentsa letradurako eskubidea.....	24
4.3 Errugabetasun Presuntzioa.....	27
4.4 Kasuaz informatua izan eta defentsa egokia prestatzeko denbora izateko eskubidea..	31
4.5 Nork bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea.....	34
4. 6 Inkriminazio bikoitzerako debekua.....	37
4.7 Absentzia kasuetan epaitzea.....	39
5. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ESKALA HANDIKO DELITUETAN.....	42
6. AZKEN GOGOETA.....	46
7. BIBLIOGRAFIA.....	50

LABURDURAK

AG: Espainiar Auzitegi Gorena.

AK: Espainiar Auzitegi Konstituzionala.

GEEA: Giza Eskubideen Europako Auzitegia.

GEEH: Giza Eskubideen Europako Hitzarmena.

GJZN: Gacaca Jurisdikzioko Zerbitzu Nazionala.

HRW: Human Rights Watch

NBE: Nazio Batuen Erakundea.

RFP: Ruandar Fronte Patriotikoa.

RNAP: Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala.

1. SARRERA

1994ko apirilaren 6an, Ruandar presidentea zen Juvénal Habyarimana garraiatzen zuen hegazkina Kigaliko aireportuan lurreratzera zihoala misil batek jo zuen, bidaiari zein tripulazio osoaren erailketa eraginez¹. Nahiz eta erasoaren egilea guztiz argia ez izan, Ruandan nagusi ziren Hutu² eta Tutsi³ etnien arteko haustura sozialak eraginda, Ruandar genozidioari hasiera eman zitzaion.

Ruandar genozidioa, Tutsi etniaren exterminio saiakera izan zen, batez ere, herrialdean eta inguruetan nagusi zen beste etnia nagusiaren aldetik, Hutuak. Haustura honen arrazoa ezagutzeko, kolonialismo garaira atzera egin beharko genuke, belgikarrek herrialdearen kontrola zeukaten aldira. Garai hartan, belgikarrek etnia ezberdinen arabera sailkatzen zituzten lanpostuak, Tutsiek, sistema sozialaren postu garaienak betetzen zituzten bitartean, Hutuei mailarik baxuenak zegozkien⁴. Izan ere, belgikarrek eliza katolikoarekin elkartuta, ordena sozial berri bat ezarri zuten zonaldean, arraza hierarkia bezalako bat ezarriz, gutxiengo Tutsiak, gehiengo Hutuak baino arraza garai, zibilizatu eta europarrekiko hurbilagoak zirela argudiatuz, gobernatzeko egokiago eta inteligenteagoak⁵.

1994ko apirilaren 7an hasi zen genozidioa 100 egunez luzatu ostean, Ruandar Fronte Patriotikoak (RFP)⁶ boterea berreskuratu zuenerako, 800.000 pertsona inguru hil ziren,

¹ RANTER, H. (d.g). *ASN Aircraft Accident Dassault Falcon 50 9XR-NN Kigali Airport (KGL)*. <http://aviation-safety.net/database/record.php?id=19940406-1>

² Hutu-ak, "bantu" jatorriko herria dira, gaur egun, Ruandar populazioaren %85 inguru osatzen duena. Aintzira Handien eskualdetik, Ruandara iritsi ziren I. mendean eta beraien nekazal ezagutzei zein biztanleria kopuruari esker, ez zitzairen kostatu lurraldeko beste etnia bakarrari gailentzea, Batwa etniari hain zuzen. Esan bezala, Hutuek, lurraldea menderatu zuten, Etiopia aldetik etorritako beste etnia bat gailendu zen arte, Tutsiak. Horrela, XV. mendetik XX. mendera arte, Tutsi etniako erregealdi ezberdinen morroi bilakatu ziren. Informazio gehigarria hurrengo estekan eskuragarri: <https://rift-valley.com/etnias-de-africa/hutus/>

³ Tutsi-ak Ruandako bigarren etnia nagusia dira, Hutuen ondoren. Jatorri nilotikoa duen etnia honek, XV. mendean Etiopiatik Afrika Ekuatorialeko basoetara eraman zion bidaia luze bati ekin zion. Batwa etniakoak ehiztariak eta Hutuak nekazariak ziren bitartean, Tutsiak, eskarmentu handiko artzainak ziren, aberastasun handiak lortu zituztelarik. XIX. mendearen amaieran, alemaniarrek eta belgikarrek ezarritako sistema kolonialaren ondorioz, gutxiengo Tutsiari mesede egiten zion sistema ezarri zuten, interes ekonomiko hutsak jarraituz, Tutsien estatusa indartu zutelarik, Hutuen aurrean. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://rift-valley.com/etnias-de-africa/tutsis/>

⁴ France 24. (2019). *Genocidio en Ruanda: ¿Por qué y cómo sucedieron los hechos?* <https://www.france24.com/es/20190406-genocidio-ruanda-25-anos-africa>

⁵ Museo Memoria y Tolerancia. (d.g). https://www.myt.org.mx/memoria_url/colonizacion-establecimiento-orden-racial#:~:text=En%201932%2C%201as%20autoridades%20belgas,las%20relaciones%20dentro%20de%20Ruanda.

⁶ Ruandar Fronte Patriotikoa (RFP), gaur egun Ruanda gobernatzen duen alderdi politikoa da, Paul Kagame presidentea zuzendua. RFP Ugandan sortu zen 1987an, Tutsi etniako errefuxiatuen bidez, Milton Oboterren diktadura suntsitzen laguntzeko. Horietako askok helburu hori alde batera utzi zuten Ruandako Hutu gobernu bateretik kentzeko helburuarekin.

gehien bat Tutsiak⁷. 1993. urtean ruandar populazioa 7,9 milioikoa zen, gehien bat Hutu etniakoak (%85), ondoren Tutsiak (%14) eta zati txikiago batean Twak (%1). Genozidioak Tutsi etniaren zati handi baten exterminazioa eragin zuen arren, Hutuen hildakoen zenbatekoa ere nabarmena izan zela ez da ahaztu behar, izan ere, hilketen aurka zeuden edo Tutsiak babesten saiatu ziren beste horrenbeste Hutu ere hil zituzten⁸. Gatazka horren ondorioz, Ruandako biztanleria 6,7 milioira murriztu zen 1994ean, eta 5,6 milioira hurrengo urtean⁹.

Genozidioa 1994ko uztailaren 18an bukatu zen, RFPk Hutu muturreko gobernu boteretik kendu zuenean, herrialdearen erregimen berri bezala ezarriz¹⁰. Hala ere, genozidioari amaiera eman zitzaionerako, herrialdeko biztanleria traumatizatuta zegoen eta erakundeak erabat suntsituta. Bitartean, milioi bat inguru Hutuk Zairera ihes egin zuten¹¹. Egoera horren aurrean, ohiko sistema judizialaren gabezietan oinarriturik, Gacaca jurisdikzioa sortu zuen Ruandako Gobernuak, genozidioaren egileak epaitzeko asmoz. Justizia errestituatiboan eta tokiko ohituran oinarrituriko sistema judizial honek, nolabaiteko bizkortasuna eman zion epaiketa prozesu guztiari, hala ere, epaiketa justu baterako bete beharko lirartekeen hainbat eskubide urratzen zituen.

Lan honen bitartez, bidezko epaiketa baterako bermeen marko orokor bat finkatzen saiatuko gara, nazioarteko tresna legal ezberdinen bitartez, orokorrean onartzen diren eskubide gehienak aipatuz eta, horien bitartez, nolabaiteko multzo orokor bat osatuz. Jarraian, multzo horren baitan sartzten diren eskubide eta berme nagusiak kasuan kasu betetzen edo urratzen diren aztertuko dugu, bai espainiar jurisdikzio eta legeriaren aldetik, zein nazioarteko zuzenbide zein jurisprudentiaren aldetik. Azkenik, kasu zehatz honetan justizia errestituatiboaren aplikazioaren egokitasuna aztertzen saiatuko gara, autore ezberdinen ideiak analizatuz, azken gogoeta batekin bukatzeko.

2. GENOZIDIO OSTEKO RUANDAR SISTEMA JUDIZIAL HIRUKOITZA

Genozidio ostean, gobernuak sistema judiziala berreskuratu zuen, Nazio Batuen Erakundeari (NBE) Nazioarteko Auzitegi Penal bat egitea galdatu zion genozidio kasuak

⁷ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 93.or.

⁸ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 13.or

⁹ *World Bank Open Data*. (d.g). World Bank Open Data. https://datos.bancomundial.org/indicador/SP.POP.TOTL?name_desc=true&locations=RW

¹⁰ El País. (1994). *Frente Patriótico Ruandés empieza a ocupar la "zona humanitaria segura"*.

¹¹ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 105.or.

epaitzeko, Batasunaren eta Adiskidetzearen Batzorde Nazionala¹² eratu zuen 1999ko martxoaren 12ko legearen bitartez eta Gacaca jurisdikzioa sortu zuen. Justizia egiteko zein elkarbizitza baketsua bermatzeko premia bereziarekin sortu zen sistema komunitarioan oinarritutako azken jurisdikzio hau, 2001eko urtarrilaren 26ko 40/2000 Lege Organikoaren bidez sortu zen, Gacaca Jurisdikzioen Zerbitzu Nazional izenpean (GJZN)¹³.

Ruandar sistema judicial hirukoitz honek paraleloki jarduten zuen, delitu gogorrenengatik ikertuak nazioarteko auzitegi penal eta jurisdikzio arruntari egokitzuz eta gainerakoak malguagoak ziren Gacaca auzitegien eskumena izanez. Sistema judicial bakoitzak ezaugarri eta lehentasun propioak zituen, izan ere, sistema judicial arruntek epaiketa justuak galdatzen zituen bermeak lehenesten zituzten bitartean, sistema komunitarioan oinarritutako auzitegiek prozesuaren bizkortasuna zuten ardatz, berme horiek alde batera utzita.

2.1 Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penal (RNAP)

1994. urteko ruandar genozidioan zehar nazioarteko komunitateak erakutsi zuen gelditasuna, genozidio osteko nazioarteko auzitegi bat eratzeko bultzada bihurtu zen. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penal ezarri zuen 1994ko azaroan 955. ebazpenaren bidez. RNAP, jurisdikzio nazionalekiko konkurrentzia egoera batean kokatzen zen, 1994. urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko gerra krimenak, genozidio krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak ezagutzeko eskumenarekin, nahiz eta nazioarteko auzitegi honek, estatu kide guztietako auzitegien aurrean lehentasuna izan. Lehentasun horri esker RNAP gai zen edozein momentutan auzitegi nazionaleri inhibizio eskaera ofiziala aurkezteko¹⁴.

Ruandako Gobernuak nazioarteko auzitegi honetik zituen helburuak ugariak ziren. Hasteko, nazioarteko komunitatearen esku hartzea bilatzen zuen delitugile horiek zigortze aldera, inpartzialtasunean oinarrituriko prozesu bat garatu eta garaileen justizia ekiditeko. Gainera, gobernuak uste zuen nazioarteko auzitegi baten irismena zabalagoa litzatekeela atzerrian bizi ziren kriminalak epaitu ahal izateko. Era berean, genozidio krimenak epaitzeko

¹² Genozidioko ordainek Ruanda betirako zatitu zezaketen beldur, Ruandar gobernu berriko buruzagiek Batasun eta Adiskidetze Nazionalerako Batzordea sortu zuten 1999an. Herrialdearen ideiak aldatzeko, taldeak gizabidezko hezkuntza, bakearen sustapena eta gatazken kudeaketara zuzenduriko hainbat programen bidezko komunikazio eta informazioa sustatu zituen.

¹³ DOMÍNGUEZ MENDOZA, K.G.; ROSERO GONZÁLEZ, T.A. (2017). *Justicia sobre la hierba. Tribunales Gacaca, lecciones de reconciliación para Colombia*. 225.226.or

¹⁴ SEGURTASUN KONTSEILUA, Nazio Batuak. (1994). Ruandar Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutua. 8.art.

nazioarteko komunitateak Ruandan gertatutako egitateak gizateriaren aurkako krimenak zirela aitortuko lukeenaren ustea zuen gobernuak. Laburbilduz, gobernuaren arabera ruandar genozidioaren ondoriozko justizia lortzeko erantzukizuna Ruandarena baino zabalagoa zen¹⁵.

Nazioarteko komunitatearen aldetik, bestalde, RNAPren eraketaren helburu nagusia justiziaren bilaketa zein bizitako ankerkerien aintzatespena ziren. Era berean, ruandarrek onartu bezala, gainezka zegoen ruandar sistema judizialak objektibotasun eta inpartzialtasun falta bizi zuen heinean, garaileen justizia ekiditea ere bilatzen zen, ahalik eta justizia neutralena egikaritzuz, eta betiere zigorgabetasunaren kulturarekin amaituz¹⁶. Azken hau bereziki garrantzitsua zen, izan ere, zigorgabetasunaren tolerantziak indarkeria ziklo berrietara eraman zezakeen Ruanda, legez kontrako ekintzak inplizituki onartuz, mesfidantza eta mendeku giroa sortzeko arriskua sortuz. Ruandan, genozidio aurreko Hutu gobernuak babestutako indarkeria urteek, 1994ko genozidioan zehar gertatutako basakeriei lagundu zietela defendatzen zuten askok, delitu guzti haien zigorgabetasuna, genozidioa eragin zuen faktore garrantzitsuenetako bat izan zelarik¹⁷. Hori dela eta, guzti hau errepikatzea ukatu nahi zen.

Hasierako helburuak argiak izan arren, praktikan ez ziren bilatutako helburu guztiak bete, eta Ruandako Gobernuak zenbait kritika azaldu zituen. Genozidioaren prestaketa 1994. urtea baino lehenagokoa zela baieztatzen zuen, ondorioz, RNAPren mugaketa tenporala desegokia iruditzen zitzaion (1994ko urtarrilaren 1etik 1994ko abenduaren 31ra arteko krimenak ezagutzeko eskumena). Bigarrenik, aurrean zuen erronkari aurre egiteko auzitegiak zeuzkan egitura eta langile kopurua oso urriak zirela iruditzen zitzaion gobernuari. Hirugarrenik, Ruandako Gobernuak beldur zen genozidio krimenek ez ote zuten euren ustetan merezi zuten arretarik izango, izan ere, RNAP eratu zuen estatutuak ez zuen krimen ezberdinen aurrean inolako lehenespenik ezartzen. Jarraituz, gobernuak ez zegoen ados “Hutu” etniarekiko harremana zeukaten herrialdeek auzitegiko epaileak izendatzeko aukerarekin. Gainera, nahiz eta Ruandako Kode Penalak heriotza zigorra ahalbidetu, RNAPen Estatutuak zigor hori baimentzen ez zuenez, gaitzespen aukeretan zegoen desberdintasuna ere salatu zen. Azkenik, bai gobernuak zein ruandarrek kezka handiak azaldu zituzten nazioarteko auzitegi hau Arushan (Tanzania) kokatzeagatik¹⁸. Nazio Batuek, azken erabaki hau inpartzialtasunaren

¹⁵ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 97.or.

¹⁶ *Ibidem.*, 98.or.

¹⁷ HASKELL, L.; WALDORF, L. (2011). *The impunity Gap of the International Criminal Tribunal for Rwanda: Causes and Consequences*. 76.or.

¹⁸ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 99.or.

aldeko mezu bezala hartu arren, praktikan, ruandarrak epaiketa horietara joateko ezintasuna izan zuen emaitza bezala. Honela, bai kokalekuak zein biktimak prozesu judizialekik baztertzeak, kritika ugari sortu ditu, auzitegia helezin gisa kalifikatuz, eta biktimengan eragin minimoak izanez¹⁹.

RNAP ezarri zenetik, logistikoki zein administratiboki izandako akatsek justizia efektibo baten aldeko helburua ez betetzea eragin dute. Alde batetik, prozesuen geldotasunak eta, bestetik, horiek aurrera eramateko neurritz kanpoko baliabideen kontsumoak, ruandarren etsipena eragin du, batez ere, prozesu nazionaletan izandako baliabide falta ikusita. Izan ere, ruandarren ustetan gutxi batzuk epaitzeko nazioarteko auzitegiak erabilitako baliabide izugarri handiek, prozedura merkeagoak dituzten jurisdikzio nazionaletan beste hainbat delitugile epaitzea ekidin dute²⁰.

Bestalde, garaileen justizia egitea nahi izan ez arren, azken finean horrela gertatu da, batez ere RFPk, hau da, genozidio osteko Ruanda gobernatzen duen Tutsi etniako gizabanakoez osatutako talde politikoak, egindako gerra eta gizateriaren krimenak aztertze aldera²¹. Izan ere, nahiz eta tribunalaren eskumenen barnean Tutsi zein Hutuek egindako gizateriaren aurkako krimenen prozesuak sartu, RFP osatzen zutenak ez dira epaituak izan. Azken hauen krimenen ondoriozko biktimentzat justizia bilatzeak ez du genozidioa ukatzen, eta genozidio kasuei lehentasuna ematea ulergarria da, bai larritasunagatik zein Ruandako agintarien laguntza jasotzeko. Hala ere, RNAPren lana ez da inoiz guztiz bukatuko RFPko kideek egindako krimenak epaitu gabe mantendu direlako²².

Azkenik, Ruandako Gobernuaren kexen artean aipatutako tresna legal ezberdinek sortutako gaitzespen desproporzionaltasunak praktikan eragin oso kritikagarriak izan ditu. Izan ere, estatutuaren eta lege nazionalaren arteko ezberdintasunek eragin dutena zera da, krimen larriagoak bete dituzten gizabanako askok, krimen leunagoak bete dituzten horiek baino zigor baxuagoak jasotzea, lehenak RNAPren Estatutuaren arabera epaitzeagatik (non heriotza zigorra baimentzen ez den), bigarrenak ruandar jurisdikzio arruntean epaituak izan diren bitartean, Ruandako Kode Penalaren arabera (non heriotza zigorra baimentzen den)²³.

¹⁹ GOLDSTEIN BOLOCAN, M. (2004). *Ruandan Gacaca: An experiment in Transitional Justice*. 17.or.

²⁰ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 106.or.

²¹ GOLDSTEIN BOLOCAN, M. (2004). *Ruandan Gacaca: An experiment in Transitional Justice*. 16.or.

²² HASKELL L.; WALDORF L. (2011). *The impunity Gap of the International Criminal Tribunal for Rwanda: Causes and Consequences*. 85.or.

²³ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 105.or.

Guzti hori dela eta, RNAPk beste jurisdikzio nazionalekin paraleloki jardun izan du. Izan ere, nahiz eta Ruandako Gobernu zein herriaren arabera auzitegiaren egitura kritikagarria izan, akats garrantzitsuena, esan bezala, maila honetako gatazka bati irtenbidea emateko ezintasunean dago. Prozedura geldo eta garestiek, 90 akusatu inguru soilik epaitzea ahalbidetu dute, zeintzuetatik 59 errudun aitortuak izan diren, horietatik 17 bizi arteko kartzela zigorrera²⁴.

2.2 Ruandar Jurisdikzio Arrunta

Nahiz eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala eratu, haren ezaugarri zein baliabide urriek, ruandar egoera konpontzea ezinezkoa bihurtu dute. Nazioarteko auzitegi honen helburuak Ruandaz gainekoak diren bitartean, Ruandaren helburuak herrialdearen mugen barnean justizia egitera eta zigorgabetasun kultura amaitzera mugatzen dira. Helburu ezberdinak diren heinean, baliabide gehiago izan arren ere, nazioarteko auzitegia ez litzateke gai izango bere lana ruandarren nahietara egokitzeko.

Genozidio osteko ruandar sistema judiziala ia erabat desagertuta zegoen, hura osatzen zuten gizabanako asko hil eta beste askok herrialdetik alde egin zutelako. Hori dela eta, genozidio bukaeratik gobernuaren lehen helburuetako bat gaitasun judizial hori berreskuratzea zen, etxeko justizia eredu sendo bat ahalbidetzeko, nazioarteko erantzukizunetik aparte, errudunen indibidualizazioan oinarrituz, Hutu etniaren aurkako sistema bilakatu beharrean, delitugile bakoitzaren aurkakoa izateko²⁵.

Honela, 1994. urtetik nazioarteko laguntzarekin pausu handiak eman ditu herrialdeak bere gaitasun judiziala berreskuratze aldera. 1996an genozidioaren lehen ruandar legea onartu zuen parlamentuak, gorte arruntei 1990. urteko urriaren 1etik 1994. urteko abenduaren 31ra arteko genozidio kasuak ezagutzeko aukera emanez²⁶. Gainera, zenbait berritasun ezarri izan ditu legeak prozesua errealitatera moldatze aldera.

Lehen berritasuna susmagarrien klasifikazioan zegoen, non horiek susmagarri ziren delituen arabera 4 kategoriatan banatzen ziren: Lehen kategorian planeatzaileak, buruzagiak, eragileak, hiltzaile ezagunak eta bortxatzaileak zeuden; bigarren kategorian, hilketa egin zuten pertsonak; hirugarren kategorian, hiltzeko asmorik gabe hil edo kalteak eragin

²⁴ DRUMBL, M. (2020). *Post genocide justice in Rwanda*. 251.or.

²⁵ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 112.or.

²⁶ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 18.or.

zituztenak; eta laugarren kategoriak, ondasunak lapurtu zituztenak barnebiltzen zituen. Legeak heriotza zigorra ezartzen zuen lehen kategoriakoentzat, eta espetxea zein kalte ordainak gainerakoentzat²⁷.

Bigarren berritasuna erruduntasun akordioarena zen, zeinaren arabera errudunek zigor murriztuak jasotzen zituzten aitorpenaren truke, kasuen pilaketa murriztuz eta prozesua bizkortuz. Dena den, mugatua zen, lehen kategoriako akusatuek ez zeukatelako akordio honetarako aukerarik. Horrez gain, prozesua bizkortze aldera *Gisovu* proiektua onartu zen, zeinaren bidez gaixoak, adinekoak eta aurrekaririk gabeko akusatuak identifikatzen ziren, froga gutxiagoren bitartez haien askatasuna onartuz²⁸.

Genozidio osteko lehen prozesuetan, ruandar auzitegi arruntak zorrozki kritikatuak izan ziren behatzaileen aldetik bidezko prozesu batek galdatzen dituen berme guztien ez betetzeagatik, garaileen justiziaren inposizioaren beldur. Hala ere, hasierako momentu horietan prozesuarenganako konpromisoan baino baliabide eta logistika faltan oinarritu zen gehienbat bermegabezia hori. Honela, *Amnesty International* erakundeak 2000. urtean argitaratu zuen *The troubled course of justice* txostenean ondorengo arazo hauek salatu zituen: Epaiketarik gabeko atxiloketak, ustezko genozidioak birritan epaitzea absolbitua izan ondoren, torturak eta tratu txarrak, heriotza zigorra ezartzea,²⁹...

RNAPrekin gertatzen den bezala, garaileen justizia egitea da ruandar auzitegi arruntetan kezka nagusia sortzen duen gaia. 1996ko Lege Organikoak gizateriaren aurkako krimen guztiak jazartzen dituen arren, errealitatean ez dira krimen guztiak ikertu. Honen adibide argia dira RFP osatzen duten gizabanakoek egindako ankerkeriak, inoiz epaitu ez dituztenak³⁰. Beraz, nahiz eta denborak aurrera egin ahala prozesuen kalitatea hobetu den, testuinguru politiko gogor batean murgilduta daude oraindik. Sistema judizialaren *tutsifikazioak* eta aipaturiko RFPren zigorgabetasunak, arazo eta duda larriak sortzen ditu haren legitimitateari eta inpartzialtasunari dagokionez³¹.

Bestalde, nahiz eta prozedura hauek delitugileen identifikazio bezalako bat baimendu duten, honek bestelako helburu batzuen bazterketa ekarri izan du. Mark Drumbl autorearen arabera, “gizartearen konplizitate handiko egoera baten aurrean banakako erru zein

²⁷ *Ibidem.*, 19.or.

²⁸ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 113.or.

²⁹ *Ibidem.*, 114.or.

³⁰ *Ibidem.*, 116.or.

³¹ GOLDSTEIN BOLOCAN, M. (2004). *Ruandan Gacaca: An experiment in Transitional Justice*. 20.or.

errugabetasunean zentratuz gero, ez dira kontutan hartzen bidegabekeria kolektiboaren garrantzia eta genozidioaren egiturazko kausak³². Honenbestez, gerta liteke prozesuaren indibidualizazioak benetako errealitatearen isla ez ahalbidetzea, testuinguru guztiz ezberdin bat planteatuz. Hau da, gizabanako bakoitzaren erruduntasuna bilatzeak, alde batera utziko luke gatazkaren oinarrian dagoen kolektiboen arteko haustura plazaratzea, epaiketa oinarri desegoki batetik planteatuz.

Azkenik, nazioarteko auzitegiaren prozesuekin gertatzen zen bezala, ruandar jurisdikzio arruntak aurrera zeramatzan prozesuak ez ziren nahikoak genozidio ostean ikertu eta epaitu beharko liratekeen kasu guztiak prozesatzeko. Prozesu geldoak eta arbitrarioak izateaz gain, ez zekarten inolako erreparaziorik benetako biktimenzako, banatuta zegoen herrialde baten etnien arteko adiskidetzea ukatuz, eta benetan Ruandak zeukan helburu nagusia ez betez, aurrera egitea³³.

2.3 GACACA Jurisdikzioa

2001. urtean Ruandako Parlamentuak Gacaca jurisdikzioa sortu zuen, gorte hauei 1990. urteko urriaren 1etik 1994. urteko abenduaren 31ra arteko genozidioarekiko loturadun krimenak ezagutzeko eskumena emanez, 1996ko genozidio legeak bezalaxe. 2001. urteko legeak zenbait aldaketa jaso izan ditu, bata 2004an, non delitugileen 3 kategoria finkatu ziren (1996ko legearen antzera) eta bestea 2007an, gorte gehiago sortuz eta hiltzaile ezagunak (lehen kategoriapekoak zirenak) epaitzeko aukera emanez Gacaca gorteei³⁴.

Ruandako Gobernuak, Gacaca jurisdikzioa sortu zuen zenbait arrazoitan oinarriturik. Lehen arrazoia, zuzendaritza kutsukoa zen, alegia, ikertuen kopurua zehazte aldera. Bigarrenez, genozidioarekiko erantzukizun legalaren dibertsifikazioa bilatzen zuen gobernuak, adiskidetzean, birgizarteratzean eta berreraketan oinarrituriko mekanismo zorrotzagoak erabiliz, gatazkaren oinarria zen etnien arteko haustura konpontzeko. Hortaz, bai adiskidetzea zein erretribuzioa, Gacaca jurisdikzioko bi helburu nagusi gisa eratu ziren, zigorren garrantziaz gain, azken hauen bidez, kriminalak birgizarteratu eta gizartera itzultzeko aukera emanez. Hirugarren arrazoia sinplea zen, egia bilatzea. Laugarren arrazoia subiranotasunaren ingurukoa zen, genozidioak eragindako ondorioen aurrean Ruandak berak irtenbideak bilatu behar zituenaren ustea baitzuen gobernuak, prozesua herrialdearekin

³² *Ibidem.*, 21.or.

³³ *Ibidem.*, 21.or.

³⁴ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 20.or.

identifikatzeko. Azkenik, gobernuak Gacaca jurisdikzioa eztabaidarako gune demokratiko bat irekitzeko aukera bezala ikusten zuen³⁵.

Nahiz eta Gacaca jurisdikzioa ohituran oinarriturik egon, ez litzateke mekanismo juridiko tradizional bezala kalifikatu behar. Izan ere, Gacaca auzitegiak estatuak berak administratzen zituen, hortaz, estatuaren botere hertsatzailea prozesu horretara ere iristen zen, genozidioaren ondoriozko errudunak espetxeratu ahal zituztelarik. Indar hertsatzaile hori halaber ezberdina zen delitugilearen kategoriaren arabera, Gacaca jurisdikzioak ezin zituelarik kriminalik gogorrenak epaitu, hau da, lehen kategoriapekoak, horiek RNAPren eskumena baitziren³⁶.

Arrazoi horietaz gain, praktikan, RNAPk eta ruandar jurisdikzio arruntak aurrean zeukaten erronkari aurre egin ezin ziotenez, Ruandako Gobernuak tokiko ohituran oinarrituriko jurisdikzio komunitario eta deszentralizatu baten beharra ikusi zuen. Justizia arruntaren gabeziak oinarritzat harturik, bi ezaugarri nagusirekin sortu zen jurisdikzio hau, bizkortasuna eta inklusibitatea. Alde batetik, kriminalen zenbatekoa izugarri handia izateak, beharrezkoa bihurtzen zuen nolabaiteko bizkortasun bat, herrialdeak aurrera egin ahal izateko, izan ere 1994ko genozidioan parte hartu zuten kriminalen zenbatekoa izugarri handia izateak, hura bukatzean kartzelak jendez gainezka egotea eragin zuen, epaiketa baten zain. Bestetik, inklusibitatearen bitartez, komunitatearen parte hartzea sustatzen zen, adiskidetzea lortze aldera³⁷.

RNAPren eta ruandar jurisdikzio arrunteko prozesuak geldoak eta garestiak izateaz gain, ez zuten sortzen biktimengan inolako erreparaziorik. Hori dela eta, Gacaca jurisdikzioa sortu zen, prozesuak merkatu, eta denbora gutxiagoan gizabanako gehiago epaitzeko, betiere prozesuak komunitatearekiko zeukan lotura mantenduz, biktimek prozesuetan parte har zezaten³⁸. Ordea, aurreko bi jurisdikzioek zituzten gabeziak estaltzearen truke, Gacaca jurisdikzioak alde batera utzi zituen bidezko prozesuari dagokionez nazioartean onarturik eta babesturik zeuden hainbat berme.

³⁵ DRUMBL, M. (2020). *Post genocide justice in Rwanda*. 260.or.

³⁶ *Ibidem.*, 119.or.

³⁷ KEYES, E. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide*. 117.or.

³⁸ *Ibidem.*, 119.or.

3. TUTELA JUDICIAL EFEKTIBORAKO ETA BIDEZKO PROZESURAKO ESKUBIDEAK.

Prozesu judiziala, legedia prozesal bidez arautzen diren egintza ezberdinek osatzen duten jarduera multzoa litzateke, ordenaren arabeko organo jurisdikzional kompetenteen bidez formalki garatua. Honen bitartez, gai eztabaidagarri baten inguruko ebazpen oinarritua ematea bilatzen da, epai formal itxura hartu ohi duena³⁹. Bidezko prozesu judizial baten bila, tresna legal ezberdinek mundu mailan bermatu dituzten berme eta eskubideak ugariak dira, gehienek bat egiten dutelarik, prozesuko eskubideen zein bermeen marko orokor bat sortuz.

3.1. Babes Judizial Eraginkorra Espainiar Ikuspegitik: Lege nazionala eta nazioarteko arauak.

Espainiar ikuspegiarekin hasiz, bidezko epaiketa baterako berme eta eskubideak eduki konplexudun artikulua baten bidez jaso ditu Espainiar Konstituzioak. Laburbilduz, espainiar lege goreneko 24. artikulua ondorengo eskubide eta bermeak aitortzen ditu: Babes judizial eraginkorrerako eskubidea, babesgabezia pairatzeko debekua, prozesu penalaren berme konstituzionalen aitortpena (bidezko epaiketa bat lortzearen alde), errugabetasun presuntziorako eskubidea eta lekukotza emateko betebeharraren bazterketa⁴⁰.

Babes edo tutela judizial eraginkorrerako eskubidea, berme guztiak dituen prozesu baten esparruan alderdien eskubide eta interesak babestuta gera daitezten bermatzen duen eskubide konstituzionala litzateke, Espainiar Konstituzioko 24.1. artikuluan babestua. Auzitegi Konstituzionalarentzat (AK), aipaturiko eskubidea pertsona guztiek sistema judizialerako aukera izateko zein auzitegietatik ebazpen arrazoitu bat lortzeko daukaten eskubidean datza, babesgabeziarik jasan ezingo dutelarik⁴¹. Izan ere, AKk behin eta berriz adierazi izan du lege konfiguraziozko eskubidea den heinean, dauden bide prozesal ezberdinen bidez baliatu beharko dela, legegileak kasu zehatz bakoitzerako galdatzen dituen berme zein baldintzak bete beharko direlarik eskubide horretaz baliatzeko⁴². Ignacio Díez Picazoren esanetan, “ez da gehiegizkoa esatea benetako babes judizialerako eskubidea, Konstituzioan aitortutako oinarrizko eskubideetatik titulartasun zabalena duen eskubidea dela, izan ere, benetako babes judizialerako eskubideak ez du ia murrizketarik edo mugarik

³⁹ Real Academia Española. (d.g) Proceso judicial. *Diccionario panhispánico del español jurídico (DPEJ)*.

⁴⁰ ORTEGA GUTIÉRREZ, D. (2003). *Sinopsis artículo 24 - Constitución española*. <https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=24&tipo=2>

⁴¹ SANCHEZ RUBIO, M.A. (2003). *Derecho a la tutela judicial efectiva: Prohibición de sufrir indefensión y su tratamiento por el tribunal constitucional*. 607.or.

⁴² Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 13/2023, 2023ko Martxoaren 6koa. 3.parr.

eta ia nahastu egiten da prozesuko parte izateko gaitasunarekin, eskubide honen titularrak baitira ordenamenduak alderdi izateko gaitasuna aitortzen dien subjektu edo erakunde guztiak⁴³”. Ignacio Garrajok gainera, adierazten du “babes judizial eraginkorrerako eskubidea erabakigarria dela praktikan Estatuko botereen banaketa definitzeko, eta oinarrizko eskubideen azken bermea ezartzeko, auzitegien tutoretzaren oinarri diren eskubide eta interes legitimoen muina baita⁴⁴”.

Konstituzioak babes judizialerako eskubidea gainera defentsa gabezia egoerarik sortu gabe gorde behar dela baieztatzen du. Joan Picó I Junoyren arabera, defentsa eskubidea debekatzea edo mugatzea litzateke babesgabetasunaren definiziorik ohikoena, organo jurisdikzionalen egintzen ondorioz gertatzen dena, egintza horiek alegatzeko edo frogatzeko eskubidea mugatzen baitute⁴⁵. Autorearen arabera babesgabetasun egoera bati heltzeko, AKk zerrendatutako baldintza hauek bete beharko liriateke: “a) Materiala izan behar da, hau da, ez formala ezta prozesu hutsekoa. Horregatik, defentsa eskubidearen funtsezko gabetzea edo mugaketa bat egon beharko litzateke, alegazioak egiteko edo alegatutakoa frogatzeko ezintasunean oinarritu daitekeena. b) Alegazio edo froga bitartekoen gabezia erreala, eraginkorra eta egungoa izan behar da. c) Erabatekoa izan behar da, hau da, babesgabetasuna jasaten duenaren defentsa aukerak ezerezera murrizten dituen. d) Behin betikoa izan behar da, eta interesdunek ezin izango dute beren eskubide edo interes legitimoen defentsa sustatu geroagoko epaiketa deklaratio batean. e) Jurisdikzio-organismoari zuzenean eta berehala egoztekoa izan behar da”⁴⁶.

Espaniar Konstituzioaren 24.1. artikulua aipatzen duen babesgabeziarik gabeko babes judizial eraginkorrerako eskubide hori bermatzeko, 24.2. artikulua hainbat eskubide zerrendatzen ditu bidezko prozesurako oinarri gisa, besteak beste, ondorengo hauek zerrendatu ahal ditugularik: a) Babes judizial eraginkorrerako eskubidea; b) Defentsa gabezia ezarako eskubidea; c) Legez ezarritako epaile arrunterako eskubidea; d) Defentsa eskubidea; e) Akusazioaz informatua izateko eskubidea; f) Letratuaren laguntzarako eskubidea; g) Prozesu publikorako eskubidea; h) Bidegabeko atzerapenik gabeko prozesurako eskubidea; i) Berme guztiak dituen prozesurako eskubidea; j) Beharrezko frogabideak erabiltzeko eskubidea; k) Nork bere buruaren aurka ez deklaratzeko eta errudun ez aitortzeko eskubidea;

⁴³ DÍEZ-PICAZO GIMÉNEZ, I. (2000). *Reflexiones sobre algunas facetas del derecho fundamental a la tutela judicial efectiva*. 15.or.

⁴⁴ BORRAJO INIESTA, I. (2000) *El derecho a la tutela sin indefensión (art 24.1 CE)*. 40.or.

⁴⁵ PICÓ I JUNOY, J. (2012). *Las garantías constitucionales del proceso*. 111 parr.

⁴⁶ *Ibidem.*, 111-113 parr.

l) Errugabetasun presuntziorako eskubidea. Honela, AKren arabera oinarrizko bi eskubide hauen bateratzeak, haren jurisprudentsiak zehaztu dituen zenbait printzipioren bete beharra dakar berarekin, zeintzuen artean bereizi daitezkeen entzunaldi, kontraesan eta baliabide berdintasunerako printzipioak⁴⁷.

24. artikuluko edukia laburbilduz, babes judizial eraginkorra, berme eta eskubide guztiak errespetatzen dituen prozesu baten baitan, alderdien eskubide eta interesak babestuta gelditzea bermatzen duen eskubide konstituzionala litzateke. Babes judizial eraginkor hau, defentsa gabezia egoerarik sortu gabe eman beharko litzateke, eta hori lortze aldera, artikulua prozesuko berme batzuk aitortzen ditu (EK 24.2.art), errugabetasun presuntzioa eta lekukotza ematera behartzeko debekua barne. Hori dela eta, bidezko epaiketa baterako eskubidea eta babes judizial eraginkorra elkar loturik dauden figurak direla antzeman genezake.

Espaniar ikuspegitik aplikagarri diren nazioarteko araei dagokienez, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren (GEEH) 6. artikulua aipatu behar dugu. Honek, bere lehen atalean bidezko epaiketa baterako eskubidea defendatzen du, horren lorpenerako hainbat eskubide edo berme aitortuz, hala nola, auzitegi independente zein inpartzial baten aurrean, arrazoizko epean eta berdintasun egoera batean epaitua izateko eskubidea adieraziz. Jarraituz, bigarren atalak, errugabetasun presuntzioa aipatzen du, eta hirugarrena defentsa eskubideen inguruan mintzatzen da. Azken hauen artean, hainbat berme babesten dira, besteak beste, defentsa letradurako eskubidea eta arrazoizko epean informatua izateko eskubidea. Azken finean, 6. artikulua da GEEHn bidezko prozesu baterako eta babes judizial eraginkorra modu zabalean lortzeko eskubideen adierazpena. Pertsonen eskubide eta askatasunak babesteko bide judiziala aitortzen digu arau honek, legearen inperioa zuzenbideko estatuan ezartzeko ezinbestekoa izango dena⁴⁸.

Gehituz, 1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuen Batzar Orokorrak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala (GEAU) onartu zuen Parisen, nazio guztiek eta bereziki gizabanako zein erakundeek, oinarrizko eskubide eta askatasunekiko errespetua sustatu, aitortu eta modu eraginkorrean aplikatzea ziurtatzeko, estatu kideetako herrien artean zein jurisdikziopeko lurraldeen artean⁴⁹. Aldarrikapen honek, epaiketa justu baterako eskubidea

⁴⁷ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 14/1992, 1992ko otsailaren 10ekoa. 6.parr.

⁴⁸ MORENO VIDA, M. N. (2018). *El derecho a un proceso equitativo en el Convenio Europeo de Derechos Humanos*. 89.or.

⁴⁹ BATZAR OROKORRA, Nazio Batuak. (1948). "Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala". Ataria.

10. artikuluan aitortzeaz gain, “Pertsona orok du eskubidea, berdintasun egoeran, auzitegi independente eta inpartzial batek jendaurrean entzuna izateko, bere eskubide eta betebeharrak zehazteko zein bere aurkako edozein akusazio aztertzeo”⁵⁰, prozesu justu bat lortzeko bestelako bermeak ere aitortzen ditu, 7. (legearen aurrean berdintasun egoera), 8. (legez oinarritutako errekurtso aukera), 9. (arbitrarioki atxiloteta eza) eta 11. artikuluetan (errugabetasun presuntzioa eta legezketasun printzipioa).

Jarraituz, Nazio Batuen Batzar Orokorak 1966ko abenduaren 16an onartu eta 1976ko martxoaren 23an indarrean sartu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1977ko apirilaren 27an berretsi zuen Espainiak. Itunak, eskubide zibil eta politikoen babesa bermatzea du helburu, eta aztergai dugun kasuari dagokienez, 14. artikulua aipatu zein aztertzea interesgarria litzateke. Artikuluaren xedea justizia behar bezala administratzen dela zaintzea litzateke, horretarako eskubide multzo bat bermatuz. Artikulu konplexua da, berme eta aplikazio eremu anitz uztartzen baititu, hala nola pertsonen legearen aurrean gozatzen duten berdintasuna, defentsa prestatzeko bermeen aitortpena, bidegabeko atzerapenik ez jasateko eskubidea, goragoko auzitegi baten menpe jartzeko eskubidea, akats kasuetan kalte ordainak jasotzeko eskubidea eta abar. Azken finean justizia organo inpartzialen aurrean berdintasunez tratatua izateko eskubidea oinarritzko elementu gisa definienez giza eskubideen babesarako, eta honek bitarteko prozesal gisa balioko luke legearen nagusitasun edo inperioa babesteko. Beraz, aipatutako artikulua Estatu Kideek errespetatu beharko lituzketen bermeak babesten edo biltzen ditu, Estatu Kideen barne zuzenbide eta ohitura juridikoak alde batera utzita⁵¹.

Laburbilduz, bidezko epaiketa baterako eskubideei dagokionez espainiar legediaren eta Espainiari aplikagarri zaion nazioarteko araudiaren bat etortzeak, babes judizial eraginkorrari emandako garrantzia azpimarratzen du. Hori dela eta, babes judizial eraginkorrerako eskubide hau norbanakoen eskubideak babesteko funtsezko zutabe bilakatzen dela baieztatuenez, justizia ziurtatzeko eta prozesu berdintsu zein bidezko bat garatu ahal izateko.

⁵⁰ *Ibidem.*, 10.art.

⁵¹ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia.* 32. Behaketa orokorra. 2.or.

3.2. Babes Judizial Eraginkorra Ruandar Ikuspegitik: Lege nazionala eta nazioarteko arauak.

Babes judizial eraginkorrerako eta bidezko prozesu judiziala izateko eskubidea funtsezko alderdiak dira edozein gizartetako oinarrizko eskubideak babesteko. Ruandarra genozidioaren testuinguruan aldaketa sakonak jasan izan dituen sistema legal eta judiziala den heinean, funtsezkoa da eskubide horiek nola bermatzen eta babesten diren aztertzea. Ruandako babes judizial eraginkorra eta bidezko prozesu judizialerako eskubidea ikertzean, aplikatzekoak diren legeak eta araudiak aztertuko ditugu, beste behin, ikuspegi nazionala eta nazioartekoa kontuan hartuta, Ruandako testuinguruan oinarrizko eskubide horien babes maila ebaluatzeko.

1990eko maiatzaren 30ean, genozidio aldian indarrean egongo zen Ruandar Konstituzioa onartu zen, egungo Konstituzioaren aurrekaria izango zena. Aurretik aipatutako tresna legal ezberdinen ildoari jarraiki, errugabetasun presuntzioa eta legezatasun printzipioa babesten zituen, inor ezingo zelarik atxilotu edo kondenatu momentuan legez ezarria ez zen kasuetatik zein formatatik at (12.art). Erantzukizun penalari zegokionez, hura pertsonala eta legez ezarritakoa izango zela nabarmentzen zuen, defentsarako eskubidea gizabanako ororena izango zelarik prozedura orotan (14.art). Gainera ruandar guztiak legearen aurrean zeukaten berdintasun egoera azpimarratzen zen, edozein diskriminazio mota debekatzen zelarik (16.art)⁵².

Jarraituz, 2003ko ekainaren 4an, genozidio osteko lehen Ruandar Konstituzioa onartu zen, haren azken aldaketa 2015ean izan zuelarik. Ruandar Konstituzioak, aipatutako Espainiar Konstituzio zein Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunarekin bat eginez, legearen aurrean pertsona guztiak gozaten duten berdintasuna azpimarratzen du 15. artikuluan. Lege goren hau aztertzen jarraituz, 29. artikulua da prozesu egokirako guztiok daukagun eskubidea nabarmentzen duena. Ruandar Konstituzioak, espainiarrarekin bat eginez, zenbait eskubide zerrendatzen ditu, prozesu egokirako eskubide orokorraren barnean kokatuko lirakeenak:

Ruandako Konstituzioko 29.artikulua: “Guztiak daukate prozesu egokirako eskubidea, ondorengo eskubide hauek biltzen dituenak: a) Akusazioen izaera zein kausari, defentsarako eskubideari eta legezko ordezkaritza izateko eskubideari buruz informatua izateko eskubidea; b) Errugabetasun presuntziorako eskubidea; c) Auzitegi kompetente baten

⁵² Ruandar Errepublikaren Konstituzioa. 12., 14., 16.art. (1990eko maiatzaren 30a). Ruanda.

aurrean agertzeko eskubidea; d) Momentuan legez ezartzen ez diren delituengatik auzipetua, atxilotua edo zigortua ez izateko eskubidea; e) Egin ez den delitu baten ondorioz errudun edo erantzule deklaratu ez izateko eskubidea; f) Legeak momentuan ezartzen duen zigorra baino zigor larriago batez zigortua ez izateko eskubidea; g) Betebehar kontratuak bat betetzeko ezintasuna dela eta kartzelatua ez izateko eskubidea; h) Legez preskribatua izan den delitu baten ondorioz auzipetua edo zigortua ez izateko eskubidea, nahiz eta zenbait delitu preskribaezinak izan legez ezarri ezker (...)⁵³.

Are gehiago, nazioarteko araei dagokienez, espainiar ikuspegia aztertzean aipatutako bi tresna ere ezargarriak lirateke ruandar kasua aztertzean. Alde batetik, 1948ko abenduaren 10ean Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutako Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aplikagarria litzateke, 10. artikuluan babesten duen delirik bidezko epaiketarako eskubidea. Bestetik, organo berberak 1966ko abenduaren 16an onartu zuen Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Ituna, 1975eko apirilaren 16an berretsi zuen Ruandak, hortaz, 14. artikuluko bermeak ere aplikagarriak lirateke.

Gehituz, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1994ko azaroaren 8an, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 955. (1994) Ebazpenaren bitartez aurrerago aipatutako Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penalaren martxan jarri zuen, estatutu propioaren bidez arautu zena eta egoitza nagusia Arushan (Tanzania) zuena, 1994ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte estatuko lurraldean zein estatu mugakideetan ruandarrek jasandako genozidio tutsiaren zein antzeko izaerako urraketan erantzuleak, hau da, egile zein sustatzaileak jazarri, atxilotu, epaitu eta zigortzeko asmoarekin⁵⁴. Honela, auzitegi honek jurisdikzio nazionalekin eta kasurako aztergai diren Gacaca jurisdikzioarekin batera lan egiten du, nahiz eta horiekiko lehentasuna izan. RNAPren Estatutuak, 20. artikuluan akusatuaren eskubideak zerrendatzen ditu, aurreko puntuan aipatutako Nazio Batuen GEAUren 7.-11. artikuluen bitartean aitortzen diren eskubideekin bat eginez:

Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penalaren Estatutuaren 20. artikulua: “1) Pertsona guztiak berdinak dira Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penalaren aurrean; 2) Akusatuak publikoki entzunak izateko eskubidea dute, beharrezko bermeak errespetatuz; 3) Errugabetasun presuntzioa gailentzen da; 4) Akusatuak, berdintasun egoeran berme minimo hauetarako eskubidea dauka: 4.a) Atzerapenik gabe, xehetasunez eta ulertzeko moduan,

⁵³ Ruandar Errepublikaren Konstituzioa. 29.art. 2003ko maiatzaren 26a (Ruanda).

⁵⁴ SEGURTASUN KONTSEILUA, Nazio Batuak. (1994). Ruandar Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutua. 1.art.

akusatuari egotzitako egozpenei buruz informatua izatera; 4.b) Defentsa prestatzeko denbora zein bitarteko nahikoak izatera; 4.c) Bidegabeko atzerapenik gabe epaitua izatera; 4.d) Prozesuan presente egon eta norbere burua defendatzera; 4.e) Lekukoak galdetzera; 4.f) Interpretaren laguntza doakoa izatera; 4.g) Bere buruaren aurka deklaratzera behartua ez izatera”⁵⁵.

Jarraituz, 1981eko uztailaren 27an, Giza Eskubideei eta Herrien Eskubideei Buruzko Afrikako Gutuna (Banjul-ko Gutuna) onartu zen, Afrikar Batasunaren Erakundearen Estaturu eta Gobernuburuaren 18. Batzarrean, European jada existitzen zen Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren (GEEH) antzekoa, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak babesteko eta sustatzeko helburuarekin. Gutunak, Estatu kide guztiek oinarrizko eskubideen arloan errespetatu beharreko minimoak ezartzen ditu, baina Europako hitzarmenak ez bezala, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak biltzen ditu, baita herriei dagozkien beste eskubide batzuk ere⁵⁶. Eskubide horien artean, Banjul-ko Gutunak 7. artikuluan epaiketa justu baterako eskubidea jorratzen du:

Banjul-ko Gutunaren 7. Artikulua: “Gizabanako orok bere kasua ikusteko eskubidea du, hau da: a) Estatuko organo eskudunetikiko apelazio eskubidea; b) Errugabetasun presuntziorako eskubidea; c) Defentsarako eskubidea, berak aukeratutako defentsa letradurako eskubidea barne; d) Auzitegi inpartzialak arrazoizko denboran epaitzeko eskubidea.

Inor ezingo da egite edo ez egite batengatik kondenatua eta zigortua izan, momentu hartan legez zigortzeko modukoa ez balitz. Zigorrak arau hausleari baino ezin zaizkio ezarri, pertsonalak baitira⁵⁷”.

Babes judizial eraginkorrerako eskubidea Espainian eta Ruandan aztertu ondoren, herrialde bakoitzean aplikagarri diren nazioko zein nazioarteko arauak kontuan hartuta, ondorioztatu genezake bateratasun nabarmena dagoela bidezko epaiketa batek galdatzen dituen eskubide eta bermeei dagokienez. Neurri handi batean, eskubide horiek bi jurisdikzioetan errepikatzen direla ikusten da, eta adostasun orokorra iradokitzen da justiziarako oinarrizko printzipioak eta legezko prozesuetan ekitatea zaintzeari dagokienez.

⁵⁵ *Ibidem.*, 20.art.

⁵⁶ ADNANE RKIOUA, A. (2011). *Los derechos sociales en la carta africana de los derechos humanos y de los pueblos*. 33.or.

⁵⁷ GIZA ESKUBIDEEI ETA HERRIEN ESKUBIDEEI BURUZKO AFRIKAKO ITUNA. 7.art. 1981eko uztailaren 27a. (Kenia).

Azterketa horrek indartu egiten du, nahiz eta testuinguruak desberdinak izan, babes judizial eraginkorrekiko konpromiso partekatua joera arrunta dela bai Espainian, Europan, Ruandan zein Afrikan. Beste modu batera esanda, bidezko prozesu baten baitan babes judizial eraginkorrerako eskubidea oinarritzen duten eskubide zein bermeei onarpen orokorra daukatela azpimarratu genezake, marko orokor bezalako bat eratuz, mundu osoan zehar errespetatzen dena eta, beraz, Gacaca jurisdikzioan errespetatu beharko litzatekeena.

4. GACACA JURISDIKZIOAREN AZTERKETA BIDEZKO PROZESUAREN IKUSPEGITIK.

Espainian zein Ruandan aplikagarri diren lege nazional zein nazioarteko arabera babes judizial eraginkorrerako eskubidea aztertu ondoren, epaiketa justua izateko eskubideei dagokienez haien arteko antzekotasunak azpimarratu ahal izan ditugu. Jarraian, Ruandako Gacaca jurisdikzioa bidezko epaiketaren eta honenbestez babes judizial eraginkorraren nazioarteko estandarrekin nola lerrokatzen den ikertuko dugu, orokorrean onartzen diren eskubide horiek banan banan aztertuz.

4.1 Auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek epaitzeko eskubidea

2001. urteko urrian, antzina Ruandan zein inguruko lurraldeetan kokatzen ziren komunitateetan oinarrituriko sistema judiziala erreferentziatzen harturik, 259.000 gizon eta emakume inguru Gacaca auzitegien epaile izateko hautatuak izan ziren, urte bereko Gacaca Legeak ezarri zituen irizpide batzuen arabera. Epaile izateko, 21 urtetik gorako pertsona arrunta izatea beharrezkoa zen, komunitatearengandik “integro” bezala kontsideratua, hau da, genozidioan parte hartu ez zuten eta moral edo etika altuko gizabanakoa, nahiz eta zuzenbideko jakituririk izan ez⁵⁸. Zuzenbidearenganako ezagutza behar ez izateak, antzeko kasuetan ebazpen oso ezberdinak ematea eragin zuen.

Auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek epaitzeko eskubidea, bidezko prozesurako bermea osatzen duen eskubideetako bat da, aurretiaz aipatu bezala, hainbat tresna legeletan aitortzen dena. *Human Rights Watch*-ek, 2007ko 32. behaketa orokorrean, Eskubide Zibil eta Politikoen Hitzarmenaren 14. artikulua ingurukoan, adierazi zuen eskubide absolutu batez hitz egiten ari garela, inongo salbuespenik jasan ezin duena. Honen harira, epaile independentearen baldintza, beraien izendapen prozedura zein kalifikazioei

⁵⁸ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 65.or.

dagokiela baieztatu zen, estatuak independentzia hori babestu beharko lukeelarik haien erabakietan eragin politikorik ez izateko, legezko prozedurak finkatuz eta irizpide objektiboak erabiliz, izendapen, sustapen, ordainsari, diziiplina arauak eta bestelakoak zehazte aldera⁵⁹. Gacaca auzitegien kasuan ordea, epailetzara iristeko irizpideak oso urriak izateak, independentzia hau bermatzea ezinezkoa bihurtzen zuen, izan ere, epaile hauek beldurtuta sentitzen ziren beste agintari batzuekin edo, sinpleki, heziketa hobea jaso zuten pertsonekin tratatzean⁶⁰.

Inpartzialtasunaren betekizuna bestalde, 2 alderdiz osatzen dela adierazi zuen Nazio Batuen Erakundeak. Alde batetik, epaileen erabakia joera pertsonalen eraginpean egotearen debekua adierazi zuen, hau da, ezin zutela eztabaidagaiaren inguruko aurreiritzirik izan, eta bestetik, auzitegia inpartzial iruditu beharko litzaiokeela arrazoizko behatzaile objektibo bati⁶¹. Inpartzialtasuna bermatzea oraindik eta zailagoa litzatekeela esan daiteke, ezinezkoa baitzen ia ruandar populazio osoari eragindako horrelako gatazka batek aurreiritzirik ez sortzea. Inpartzialtasun honen falta, bereziki nabaria bihurtzen zen epaileek akusatuekiko zuten jarreraren, kondenatuak izan aurretik ere.

Nazio Batuek 2016an adierazi zuten aipatutako 14. artikulua bereziki garrantzitsua bilakatzen zela justizia egiteko asmoz, estatu batek ohituran oinarritutako auzitegiak aintzatesten dituenen, eta gainera gorte mota horiek ezin dituztela epaiketei buruzko epairik eman, gai penal edo zibil txikiak jorratzen ez badituzte eta, nola ez, prozesu egokiaren baldintzak betetzen ez badira⁶². 08/96 Lege Organikoak, genozidio delituen inguruko lehen ruandar legeak, delitugileak 4 kategoriatan sailkatu zituen, horien arabera Gacaca juridikzioko organo ezberdinez epaituak izango zirelarik eta zigor astunago edo arinagoak leporatuko zitzaizkielarik. 2004. urteko Gacaca Legeak bestalde, 3 kategoriatara murriztu zuen sailkapena, baina irizpideak oso antzekoak ziren. Honela, 1996ko Lege Organikoa erreferentziatzat harturik, lehen kategoria batean, genozidioaren bultzatzaileak, planifikatzaileak, hiltzaile nabarmen eta bortxatzaileak kokatzen ziren. Bigarren kategorian aldiz, norbait hil zutenak zeuden, hirugarren kategoria, kalte pertsonalak eragin zituztenei

⁵⁹ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 19.parr.

⁶⁰ Penal Reform International. (2008). *Monitoring and Research Report on the Gacaca: Testimonies and evidence in the Gacaca Courts*. 38.or.

⁶¹ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 21.parr.

⁶² DOMÍNGUEZ MENDOZA, K.G.; ROSERO GONZÁLEZ, T. A.. (2016). *Justicia sobre la hierba. Tribunales Gacaca, lecciones de reconciliación para Colombia*. 228.or.

zegokielarik. Azkenik, laugarren kategorian, jabetzen gaineko kalte eragileak sartzen ziren⁶³. Eskumena esan bezala partekatua zen, Gacaca Jurisdikzioaren kompetentzia 2., 3. eta 4. kategoriapeko delituengatik akusatua epaitzera mugatzen zelarik. Lehen kategoriapekoak bestalde, RNAPren eta jurisdikzio arruntaren eskumena ziren⁶⁴. Honenbestez, nahiz eta Gacaca Jurisdikzioak sailkapeneko lehen kategoriapeko delituak, hau da, astunenak, epaitu edo ezagutzen ez bazituen ere, NBEk ezarritako premisa ere ez zuen errespetatzen, erakundearen arabera, gai penal eta zibil txikietara mugatzen baitzen ohituraren oinarritutako jurisdikzioaren eskumena. Laburbilduz, NBEren premisa hori betetzea eta ohituraren oinarrituriko jurisdikzio honek 2., 3. eta 4. kategoriapeko delituez ezagutzeko eskumena izatea, bateraezinak lirateke, aipaturiko delituak ez baitira gai zibil eta penal txikien definizio horrekin identifikatzen.

Espainiar Konstituzioak bere aldetik berariaz epaile inpartzial baterako eskubidea aitortu ez arren, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinak adierazi izan du Konstituzioko 24.2. artikuluko berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidearen barruan sartzen dela. AKren doktrinak gainera, esate baterako uztailaren 22ko 155/2002 epaian, bereizketa bat egiten du inpartzialtasun objektibo eta subjektiboaren artean: “Irizpide horren arabera, gure jurisprudentziak ezberdindu egiten du alde batetik inpartzialtasun subjektiboa, hau da, epaileak alderdiekin behar ez bezalako harremanik ez izatea bermatzen duena eta, bestetik, inpartzialtasun objektiboa, prozesuaren xedari buruzkoa, zeinaren bidez ziurtatzen den epaile edo auzitegiak ez duela alde aurreko harremanik izan “Thema decidiendi” delakoarekin⁶⁵”.

Gure kasuari helduz gero, zaila litzateke inpartzialtasun objektibo zein subjektiboa kasu guztietan betetzen direla baieztatzea. Oso konplikatu suertatzen da alde batetik Gacaca epaileen inpartzialtasun objektiboa frogatzea, kontutan hartzen badugu epaileak, biktimak direla. Hau da, kontutan izanik krimenen funts edo arrazoia Hutu eta Tutsi etnien arteko gorrotoan sortzen dela, oso zaila litzateke frogatzea bere etniaren aurkako eraso bizi izan duen epaile bat inpartziala izan daitekeela gaiaren mamiari dagokionez, nahiz eta pertsona “integroak” izan. Era berean, bazeuden epaile Hutuak ere, eta kasu horietan ere mamiaren

⁶³*Ibidem.*, 226.or.

⁶⁴ SOSA NAVARRO, M. (2014) *África y la justicia transicional: Los tribunales “Gacaca” de Ruanda*. <https://umoya.org/2014/02/06/africa-y-la-justicia-transicional-los-tribunales-gacaca-de-ruanda/>

⁶⁵ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 155/2002, 2022ko utzailaren 22koa. 2. Zuzenbideko oinarria.

gaineko inpartzialtasun osoa onartzea ez da erraza, genozidioan bizi ondoren, askok bere iritzi sendoak baitzituzten gertatutakoaz⁶⁶.

Inpartzialtasun subjektiboari dagokionez antzeko zerbait gertatzen da, izan ere Gacaca epaileek beren inguruko gertaerekin zerikusia zuten kasuak epaitzen zituzten, kasuan kasu, alderdi batzuk edo besteak ezagutuz, ahaide, lagun, auzokide zein negozio bazkideak epaitzea gertatu ahal zen eta⁶⁷. Hori dela eta, nazioarteko behatzaileen ustez faktore hauek partzialtasun egoeren sorrera eragin dute, nahiz eta epaileek borondaterik onena izan.

Inpartzialtasun faltan eragin zezakeen beste faktore bat ordainsari eza zen. Gacaca epaile hauek beraien lana dohainik egiteak usteltze egoeren sorrera ekarri zuen, eta badira hainbat kasu non akusatu aberatsen eroskeria onartzen duten epaileek, absoluzioaren truke edo kasuak bertan behera uzteko. Lana dohainik egiteaz gain, gatazka ondoren bizirik iraun zutenen pobrezia larriak ere eragin zituen jarrera hauek, izan ere, *Penal Reform International* erakundeko begiraleek egindako elkarrizketa ugaritan antzeman daiteke bizirik iraun zutenen muturreko pobrezia, isolamendua eta konpentsazio ezari aurre egiteko zeukaten frustrazio sakona⁶⁸. Gainera, usteltze kasuak ez dira soilik epaileetara mugatzen, lekukoek kasuak ere badirelako diru truke testigantza aldatzen dutenak edo akusatua defendatzen dutenak. Ruandar Gacaca Jurisdikzioko Zerbitzu Nazionala (GJZN) jakitun izan da usteltze kasuez, eta maiz poliziak esku hartu duen arren, *Human Rights Watch*-i (HRW) adierazi zioten ez zutela kasu horien inguruko informaziorik gordetzen. Gobernuak kanpoko erakunde honek, bere aldetik, Ruandar Arartekoari ere kontsultatu zion azken honen iritzia, eta emaitza berdina jaso zuen. Hala ere, 2008. urtean Auzitegi Gorenak eta GJZNeke idazkari exekutiboak adierazi zuten 56.000 epaile ustel inguru kargugabetu zituztela⁶⁹. Dena den, HRWen ustetan gehiago dira antzeman ez diren eta prozesuari eragin izan dioten ustelkeria kasuak.

Independentzia judizialari dagokionez, bestalde, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) 2022/81 epaian, 2022ko ekainaren 16koan, ondorengo hau adierazten du: “Independentzia judiziala ez da pribilegio bat. Alderdi politikoek presioetatik babesten ditu epaileak. Independentzia ematen die, ehuleak bezalakoak ez izateko. Legez soilik gidatzen

⁶⁶ Human Rights Watch. (2020). *Ruanda: el legado mixto de los tribunales comunitarios para el genocidio*. <https://www.hrw.org/es/news/2011/05/31/ruanda-el-legado-mixto-de-los-tribunales-comunitarios-para-el-genocidio>

⁶⁷ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 105.or.

⁶⁸ Penal Reform International. (2008). *Monitoring and Research Report on the Gacaca: Testimonies and evidence in the Gacaca Courts*. 38.or.

⁶⁹ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 105-106.or.

dira, eta ez alderdi politiko baten edo beste baten interesen arabera. Immunitate judiziala estatuaren bermea da botere legegileak eta exekutiboak legea hausten dutenean. Epaileei dagokienez, diziiplina errekurtsioak publikoak diren lanbide gutxienetako bat dira⁷⁰. Hortaz, berme honen bidez epaileak legeari lotzen dira, kanpoaldetiko eraginetatik babesteko, eragin politikoetatik esate baterako. Dena den, HRW erakundearen esanetan bai partikularrak zein gobernuko politiko zein funtzionarioek Gacaca Auzitegien prozesuak manipulatzeko zitezkeen helburu pertsonaletarako, hala nola kritikariak zein aurkari politikoak isilarazteko. Gainera, Gacaca Auzitegien eskumenetan ere ideia politikoek eragin nabarmena izan zuten, hala nola 2001eko Gacaca Legean, non nahiz eta auzitegi hauek gerra krimenen eskumena izan, krimen horien barnean ordea ezin zuten RFPk (Hutu gobernuak egindako genozidioaren ondoren, muturreko Hutu diktadura boteretik kendu zuen alderdi politiko) egindako krimenen biktimek eta senideek justiziarik bilatu⁷¹. Azken adibide honetan ikusi genezake justizia azken finean garaileena zela.

Laburbilduz, epaile independente, inpartzial eta eskumendun baten aurrean epaitua izateko eskubidearen ez betetzea argia da. Hasteko, epaileen hautapenerako erabiltzen ziren irizpideak oso txiroak ziren, haien independentzia bermatzea ezinezkoa bihurtuz. Izan ere epaileen hautapenerako erabiltzen zen ezaugarri nagusia integritatearena zen, irizpide subjektibo bat, independenteki kontrola ezina dena. Legezko prozedura eta irizpide objektiboen faltak ez ezik, eragin politiko eta ordainsari ezak, prozesuko alderdien berdintasun printzipioaren aurka egiten zuten. Epaileen jakituria gabeziak, ahul bihurtzen zituen, beraiengan eragitea errazago bihurtuz. Ordainsari faltak eta muturreko pobreziak, usteltze kasuen sorrera zekarren, akusazio edo akusatuen alde eginez haien baliabide ekonomikoen arabera. Eragin politikoak nabarmenak ziren, populazioarenganako zentsura argia ezarriz. Gainera, prozesuaren kanpotik zetozen eragin guztiak baztertu arren, epaile guztiek nolabaiteko aurreiritziak zitezkeen, ia ruandar populazio osoa murgildu zuen gatazka izan zen heinean. Azken finean epaileen gorputzaren zati handi bat biktima Tutsiek osatzen zuten, aldi berean gatazkaren garaileak zirenak. Guzti hau, zehapan gogorak ezartzen zituzten prozesuetara eramateak, larriagoa bihurtzen zuen prozesua, akusatuen kaltetan. Esan genezake independentzia eta inpartzialtasun gabeko prozesu baten aurrean gaudela, garaileen justizia egiteko testuinguru paregabea.

⁷⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 81/2022, 2022ko ekainaren 16koa.

⁷¹ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 119.or.

4.2 Defentsa letradurako eskubidea

Defentsa letradurako eskubidea, prozesu judizialean parte hartzen duten alderdiak, askatasunez izendatuta edo ofizioz, zuzenbide material, sustantibo eta prozesala ezagutzen duen profesional batek ordezkatu eta horrengandik defentsa jasotzea bermatzen duen oinarrizko eskubidea litzateke. Eskubide edo berme honen bitartez, prozesuko berdintasun printzipioa bermatzea bilatzen da, izan ere, prozesu penalean, epaileaz gain, ministerio fiskalak jardun ohi du, legaltasunaren defentsan justizia bila ari den erakundeak hain zuzen, biak zuzenbidean adituak. Hori dela eta, balantza ahalik eta zuzenena zein bidezkoena den epaiketa bati begira orekatzeko, defentsa letradurako eskubidea bermatu ohi da⁷².

Defentsa letradurako eskubidea, Ruandak bere Konstituzioaren 29. artikuluko bidezko prozesurako eskubidearen barnean, zein herrialdea parte den bestelako tratatuetan aitortu izan du. Era berean, Ruandar esparrutik kanpo ere, orokorrean bermatzen den eskubidea dugu, nazioartean babesten den bidezko prozesu bat lortzeko eskubideen marko orokorraren barnean sartzen dena. Horiek ez bezala, Gacaca Jurisdikzioa sortu zuen 2001. urteko legeak, eta horren eraldaketa ekarri duten etorkizuneko erreformek, funtsezko eskubide hau baztertu dute. Honela Ruandako Gobernuak, eta batez ere Gacaca Jurisdikzioaren Zerbitzu Nazionalak, defentsa letradurako eskubidearen bazterpena ondorengo 4 arrazoi hauetan oinarritu izan dute⁷³:

- 1994. urteko Ruandar genozidioko populazioaren parte hartzea izugarri handia izateak, ikertu eta akusatu guztiek abokatuaren laguntzaz baliatzeko ezintasuna zekarren. Gacaca Jurisdikzioaren ezaugarri nagusietako bat, prozesuaren bizkortasuna zenez, guztientzako abokatuia izendatzeak prozesua etengabeen luzatuko zuelakoan, GJZNk, arrazoi gisa ikusi zuen hau, defentsa letradurako asistentzia galarazteko.
- 2001. urteko Gacaca Legeak, jurisdikzioaren sortzaile izan zenak, zenbait irizpide ezarri zituen epaile izateko, zuzenbidearekiko jakituria alde batera utziz eta epaileen integritatearen alde eginez. Epaileek legearenganako zeukaten ezagutza 6 eguneko prestaketa batera mugatzen zenez, abokatuaren ezagutzak haiengan izan zezakeen eragina edo influentziaren beldur, GJZNk defentsa letraduaren debekurako bigarren arrazoi bezala adierazi zuen hau.

⁷² FUERTES J. (d.g.). *Derecho a la defensa y a la asistencia de letrado*. <https://vlex.es/vid/derecho-defensa-asistencia-letrado-899696529>

⁷³ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 28.or.

- Prozesuak bidezko epaiketa baten bermeak bete zitzan, Ruandar gobernuak defentsa letradurako eskubidea, erkidegoaren parte hartzearekin ordezkatzeari arrazoizko neurri bezala ikusi zuen, erkidegoaren parte diren horiei, galderak zein hitz egiteko aukera emanaz.
- Azken arrazoi bezala, erkidegoak prozesuan abokatuaren tokia hartzeak, ruandar herritarren prozesuarekiko jabetza sentimendua indartuko zuenaren ustea zuen GJZNk, beharbada bermerik gabeko prozesu hau legitimatuz.

Aurretiaz aipatutako eta Ruanda parte den Nazio Batuen Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 14. artikulua eskubide bera babesten du. Eskubide hau, auzitegien aurrean gizabanako guztiok dugun berdintasun eskubidearekin lotzen da, izan ere nahiz eta abokatu izendatzeko askatasuna egon, baliabiderik ezean Estatuari dagokio doako laguntza juridikoa eskaintzea. Dena den, baliabide faltan Estatuaren funtzioa haratago doala baieztatzen du NBEk, izan ere, akusatuek bere abokatuarekin komunikatzeko aukera izan behar dute, bidezko epaiketarako eta baliabide berdintasunerako berme bezala, beharrezkoa denean Estatuari egokitzeko doako interpretea eskaintzea⁷⁴.

Defentsa letradurako eskubideari dagokionez bestalde, Espainiar Auzitegi Gorenaren (AG) jurisprudentzia argia da. 821/2016 epaian, azaroaren 2koan, AGren Penal Salak adierazi zuen defentsa eskubidea, orokorrean abokatu bidez garatua, bai atxilotuaren zein inputatuaren oinarritzko eskubide gisa eratzeko zela, Konstituzioaren 17. eta 24. artikuluetan, eta garrantzia nabarmena duela azken artikulua honek, ez baitago Konstituzioaren 55. artikulua araberan setio edo salbuespen egoeren kasuetan eten daitezkeen eskubideen artean. Epaia aztertzen jarraituz, 24. artikuluan agertzen den letraduraren laguntzarako eskubidea, beste eskubide askorekin batera agertzen dela baieztatzen da, eskubide horietako baten eraginkortasuna ziurtatzera begira, hau da, berme guztiak dituen prozesu baterako eskubidea ziurtatzera begira, GEEHren arabera⁷⁵.

Espainiar Auzitegi Konstituzionalaren doktrinari dagokionez bestalde, honek bat egiten du GEEAren. AKren 37/1998 epaian, baieztatu zen aipaturiko defentsa eskubideak hiru eskubide bermatzen zizkiola akusatuari: Bere burua defendatzeko eskubidea, berak aukeraturiko abokatuaren laguntzaz defendatzeko eskubidea, edo doako abokatuaren laguntza

⁷⁴ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 13. parr.

⁷⁵ Auzitegi Gorenaren Epaia 821/2016, 2016ko Azaroaren 2koa. 4. Zuzenbideko oinarria.

jasotzeko eskubidea, baldintza jakin batzuk betetzen ziren kasuetarako. Gainera gehitu zuen hiru defentsa bide horietako bat aukeratzeak ez zuela esan nahi beste eskubide horietariko bati uko egiten zitzaionik edo erabiltzea posible ez zenik beharrezko kasu guztietan⁷⁶.

GEEAren jurisprudentziaren arabera, bidezko epaiketarako eskubidea eraginkor izan dadin, defentsa letradurako eskubide hau akusazio penal bat egon bezain laster bermatu beharko da, bereziki ikertua atxilotzen den unetik, GEEHren 6.1. artikuluekin bat eginez. Auzitegiak funtsezkotzat jotzen du bere burua defendatu nahi ez duen orok, abokatu askatasunez izendatzeko eskubide edo aukera izan behar duela, akusatuaren defentsa eraginkorra bermatzeko ezinbesteko tresna bezala kontsideratzen baita nazioarteko giza eskubideen arau ezberdinetan. Dena den, nahiz eta akusatuak bere izendapeneko abokatu izateko eskubidea izan, haien arteko konfiantza ezinbestekoa izanik defentsa egoki bat prestatzera aldera, auzitegiaren jurisprudentziak adierazi izan du ez dela eskubide absolutu bat. Izan ere, azken hau mugatuta ikus daiteke doako abokaturako laguntza jasotzen den kasuetan zein auzitegiei dagokienean justizia interesak direla medio, haien izendatutako abokatuak akusatu defendatzea. Kasu horietatik kanpo, GEEAk adierazi izan du abokatu izendatzeko askatasun horren mugaketak 6.1. artikuluko bermearen urraketa ekarriko lukeela⁷⁷. Hortaz, ikusi genezake europar auzitegia ez dela mugatzen eskubide hau bermatzera, baizik eta akusazio penala jaso bezain pronto bermatzen den eskubide gisa babesten duela.

Beste ikuspegi batetik, Europar Parlamentuaren 2013/48/UE Zuzentarauaren 31. artikulua estatu kideek praktikan eta eraginkorki defentsa eskubidea egikaritzeko momentu zein modua zainduko dutela dio, bai susmagarri zein akusatuak daukaten defentsa letradurako eskubideari dagokionez. Hau da, organo jurisdikzionalak ez direla mugatuko soilik prozedura arau batzuk formalki betetzen direla bermatzera, baizik eta zuzenbidearen eraginkortasun praktikoa zaintzera behartu behar direla. Honen harira, GEEAk adierazi du ez dela nahikoa defentsa eskubidearen aitortpen formal batekin, baizik eta eskubidearen eraginkortasun erreala bermatu behar dela⁷⁸.

Guzti hori dela eta, akusatuak bizi izan zuten babesgabezia egoera nabarmena eta kezagarria da. Egia da herrialdea mugako egoera batean murgilduta zegoela eta logistikoki akusatu guztiei abokatu baten bidez defendatua izateko eskubidea bermatzea oso zaila zela.

⁷⁶ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 37/1998.

⁷⁷ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1/2022 epaia, urtarrilaren 18koa. 23. parr.

⁷⁸ Europar Parlamentu eta Batzordeko 2013/48 Zuzentaru, 2013ko urriaren 22koa.

Hala ere, 6 egunetan 250.000 gizabanako baino gehiagok osaturiko epaile gorputz bat osatzea pareko erronka izan zela esan genezakeen heinean, akusatuen defentsarako beste gorputz bat prestatzea ere legitimoa litzateke. Epaileen legezko jakituria urria zela eta abokatuek haiengan sor zezaketen eraginaren arrazoia objektiboki pobrea izateaz gain, akusatuekiko apartekoa da. Era berean, prozesua komunitatearen parte hartzearen bidez legitimatzea inpartziala litzateke, prozesuetara hurbiltzen ziren eta haietan esku hartzen zuten gehienak Tutsiak ziren heinean, momentu horretako haustura soziala kontutan hartuta.

4.3 Errugabetasun Presuntzioa

Errugabetasun presuntzioa, definizioz, arau hauste penal bat egin duen gizaki orok kondenaarik ez jasateko duen eskubidea da, epaiketa justu baten kondena epai irmo bidez ezarria izan arte⁷⁹. Eduki zabala duen eskubidea litzateke, zentzu sustantiboan arauak interpretatzeko irizpide bezala balio duelako, interpretazio aldekoena edo faboragarriena erabiliz, eta baita irizpide prozesal bat daukalako, akusatuari berme batzuen pean babestu beharko zaiolarik, *in dubio pro reo* printzipioa errespetatuz.

Genozidio osteko ruandar kasua aztertuz, ezin genezake esan presuntzio hau errespetatzen denik. Izan ere, bai zenbait gobernuburuk zein prentsak maiz errudun gisa jo dituzte hainbat oposiziogile politiko zein gobernuarekiko kritiko direnak, sarritan, Gacaca gorteetan formalki inputatu aurretik ere. Guzti honek, errugabetasunaren aurkako atmosfera bezalakoa sortu izan du, aurretik aipatutako presuntzioa kaltetuz. Horrez gain, presuntzioaren haustura hau sortu duten ofizialen zein kazetarien alegazio hauek, haien aldeko erreminta bilakatu dira, ez soilik oposiziogileak eta kritikoak isiltze eta jarraitze aldera, baizik eta baita eztabaidagai sentikorren inguruko debatea ezabatze aldera. Gainera, praktikan errugabetasun presuntzio honek auzitegiak akusatuarekiko daukan tratuan ere eragina izan du. Izan ere, NBERen Giza Eskubideen Batzordeak dokumentatuak ditu zenbait ruandar kasu non Gacaca auzitegi hauetan ari diren epaileek akusatua erruduna dela erabaki aurretik halakotzat tratatu duten, besteak beste hitz itsusiak erabiliz, akusatuarekiko tonu erasokorra baliatuz edo akusatuaren testigantza etenez, berdintasunean oinarritzen den prozesu penala urratuz⁸⁰.

Printzipio honen arabera beraz, pertsona bat ezin da behartu erruduntasuna onartzera edo bere buruaren aurkako frogak ematera. Presuntzio honen efektu nagusia hala ere, nola ez,

⁷⁹ Real Academia Española. (d.g) Presunción de inocencia. *Diccionario panhispánico del español jurídico (DPEJ)*.

⁸⁰ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 31-33.or.

prozesu honetan errespetatu ez dena, zera da, akusatua kontrakoa frogatu ezean errugabea izanik, akusatzaileri dagokiola erruduntasun hori frogatzea, hau da, frogaren karga akusazioarena dela. Efektu edo printzipio hau berretsi dute ez soilik barne legeek, baita nazioarteko hitzarmenek zein nazioarteko jurisdikzio ugari, hala nola, Ruandarako Nazioarteko Zigor Auzitegiak, Jugoslavia Ohirako Nazioarteko Auzitegiak eta Kanbodiako genozidiorako tribunalek⁸¹.

Errugabetasun presuntzioa ez hausteko, eduki inkriminatorioa arrazionalki baloratu behar da, logikan, esperientzian eta ezagutza zientifikoan oinarrituz, epaileak zuzenbidea interpretatu eta aplikatuko duelarik, egitatei eta akusatuaren partaidetzari buruzko ziurtasun objektiboena lortzeko, izan ere, presuntzioaren hausteak *in iudicando* akats bat dakar, auzipetuaren absoluzioa dakarrena. Gainera, inor ez dago bere errugabetasuna frogatzera behartuta, frogaren zama akusazioak baitu esan bezala, akusatuaren aurkako frogak kargu nahikoa izan beharko dutelarik, ondoren epaileak baloratzeko⁸².

Eskubide Zibil eta Politikoen Hitzarmenaren 14.2. artikulua errugabetasun presuntzioa babesten du. Nazio Batuen 2007ko 32. behaketan, 14. artikulua ingurukoan, adierazten da delitu bat leporatzen zaion gizabanako orok duela presuntzio honetarako eskubidea, legearen arabera bere zalantzarik gabe erruduntasuna frogatzen ez den bitartean. Hortaz, akusatuari zalantza onura delakoa aitortzera behartzen zaie agintari publiko guztiei, zenbait jokabide saihestera behartuz, esaterako akusatuaren erruduntasuna deklaratzeko iruzkinak egitea. Dena den, errugabetasun presuntzio hau komunikabideetara eta orokorrean gizartera ere zabaltzeko behar dela baieztatzen du behaketa honek, ez delarik agintaritzako publikoetara mugatzen. Azkenik, azpimarratzekoa litzateke baita ere fidantzapeko askatasuna galarazteak, atxiloketaren epeek edo bestelako antzeko neurriek ez luketela erruduntasunaren adierazgarri gisa jokatu behar⁸³.

Espaniar legearen kasuan Konstituzioko 24.2. artikuluan babesten da errugabetasun presuntzioa. Jurisprudentzia ere ildo beretik ari da, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren esanetan, jarduera judizialak informatu behar duen eskubidearen printzipio orokor izateari

⁸¹ GHASSAN FAKHOURY A. (2018). *Gacaca Courts in the Light of Public International Law: Bold step in Achieving Reconciliation and Justice in Rwanda*. 24.or.

⁸² Editorial Colex. (d.g). *Iberley. contenido jurídico*. <https://www.iberley.es/temas/derecho-presuncion-inocencia-proceso-penal-63108>

⁸³ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 30.parr.

utzi baitio, botere publiko guztiak lotzen dituen eta berehala aplikagarria den oinarrizko eskubide bihurtuz⁸⁴.

AKren arabera, froga jarduera edo egintza bat nahikoa litzateke errugabetasun presuntzio hau errespetatu dadin, eta organo juridikzialak emango duen epaia froga egintzan oinarritu beharko litzateke. Dena den, froga jarduera horrek betekizun batzuk bete beharko lituzke doktrinaren arabera, izan ere, horrek, delituaren elementu objektibo zein subjektiboei erreferentzia egin beharko lieke. Elementu objektiboen artean jokabide tipikoa egongo litzateke, elementu subjektiboen artean berriz, parte hartzea eta kausalitate lotura.

Auzitegi Gorenak, 580/2014 epaian, uztailaren 21ekoan, argitzen du Konstituzioko 24.2. artikuluko errugabetasun presuntzioa ondorengo ideietan oinarritzen dela: 1) Epaitegi eta Auzitegiei dagokien froga penalaren balorazio askeko printzipioan (EK 117.3.art); 2) Kondena epaia benetako froga egintzetan oinarritu behar dela, aipatutako presuntzioa indargabetzeko nahikoa izanik; 3) Froga horiek salbuespenak salbuespen, ahozko epaiketan praktikatu behar direla; 4) Froga horiek pertsonatutako akusazioen esku egon behar direla; 5) Soilik froga hutsune horretan oinarrituta eman daitekeela errugabetasun presuntzioaren haustura⁸⁵.

AGk gainera, 16/2012 epaian, otsailaren 13koan, presuntzioaren haustura dagoela dio kondena eman denean: Karguzko frogarik gabe, baliogabeak diren frogetan oinarrituta, beharrezko bermeak errespetatu gabe egin diren jardueretan zimendatuta, arrazoitu gabeko froga konbentzimendu kasuetan, froga eskasetan euskarrিতා eman denean edo motibazio edo arrazoinamendu ilogiko edo irrazionalean funtsatu denean⁸⁶.

Europar aldetik, 2016/343 Zuzentarauaren bidez prozesu penalean errugabetasun presuntzioaren eta prozesuan presente egoteko eskubidearen zenbait alor indartzen dira, bat eginik edukiari dagokionez aurretik aipatutako jurisprudentziarekin. Errugabetasun presuntzio honen alde egiteko, frogaren zama akusazioarena dela baieztatzeaz gain, zalantza kasuetan akusatua alde egiteko printzipioa aipatzen da, hau da, aurretiaz aipatutako *in dubio pro reo*. Zuzentaru honek, estatu kideek susmagarriaren errugabetasuna bermatzeko neurriak hartzeko betebeharra zehazten du, haien erruduntasuna aitortzen ez den bitartean baina erruduntasun hori frogatzera bideratutako egintzei kalterik egin gabe, hau da, organo

⁸⁴ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia, 113/1980 Errekurtsoa, 1981eko uztailaren 28koa.

⁸⁵ Auzitegi Gorenaren Epaia, 580/2014, uztailaren 21ekoa. 5. Zuzenbideko oinarria.

⁸⁶ Auzitegi Gorenaren Epaia, 16/2012, otsailaren 13koa. 3. Zuzenbideko oinarria.

jurisdikzionalaren ofiziozko frogei, independentzia judizialean oinarrituriko erruduntasunari eta erantzukizun penalari buruzko *de facto* edo *de iure* presuntzioak erabiltzeari kalterik egin gabe⁸⁷.

GEEHren 6.2. artikulua eta Oinarrizko Eskubideen Europar Batasuneko Gutunaren 48. artikulua, gizabanako orori dagokion errugabetasun presuntzioa bermatzen dute, legalki errudun deklaratu izan ez den bitartean. Akusatuari dagokion eskubidea da, GEEAren esanetan, zeinaren arabera arau hausterik egingo ez balu bezala tratatu izan beharko lukeen, baliozko eta karguzko frogak kontrakoa adierazi arte. Gainera, organo jurisdikzionalako kideenganako eragina ere badu, gaiaren inguruko aurreiritzirik izan ez dezaten bermatzen baita honen bidez. Erruduntasun zama ere estatuari dagokiola adierazten du europar auzitegiak, Europar Batasuneko Zuzentarauak zein espainiar jurisprudentziak jarraitzen duten ildoarekin bat eginez, zalantza kasuetan akusatuaren alde eginez, eta azken honi galderak erantzuteari uko egiteko zein autoinkulpazio ezarako eskubidea bermatuz, epaiaren ebazpenean kalterik jaso gabe⁸⁸.

GEEAk, errugabetasun presuntzioaren 2 alderdi bereizten ditu bere jurisprudentziaren bidez: alde batetik, prozesu penalarekin erlazionatuta dagoen alde prozesal bat eta, bestetik, prozesu penala epai kondenatorio batekin amaitzen ez den kasuetarako berme alderdi bat⁸⁹.

Lehen alderdiari dagokionez, europar organoak errugabetasun presuntzioaren bitartez babesten diren berme ezberdinei egiten die erreferentzia. Horien artean, organo judiziala osatzen duten gizabanakoek akusatuekiko eduki behar duten jarrera aipatzen da, frogaren zama, legezko zein egitatezko presuntzioak, epaiketarako sarbide publikoa edo norbere burua erruduntzat ez jotzeko eskubideaz gain. Bigarren alderdiak, bestalde, prozesu penala bukatu osteko momentuari egiten dio erreferentzia, aipatu bezala, epai kondenatorioa ez den beste emaitza izan duenean prozesuak. Azken kasu honetan, nahiz eta prozesuan zehar errugabetasun presuntzioa mantendu, hura prozesua bukatu ostera ere zabaldu behar da, helburu pare bat bete daitezten. Alde batetik, beste edozein prozesutan kondena epairik ez ematea bilatzen da eta, bestetik, pertsonaren ospea edo gizarteak harekiko duen ustea mantentzea⁹⁰.

⁸⁷ Europar Parlamentu eta Batzordeko 2016/343 Zuzentaraua, 2016ko martxoaren 9koa. 6,7,8.art.

⁸⁸ Europar Batzordea, Liburu berdea. Errugabetasun presuntzioa. 2006ko apirilaren 26.

⁸⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 99/2019 Epaia, uztailaren 18koa. 39. parr.

⁹⁰ *Ibidem.*, 39-40.parr.

Laburbilduz, errugabetasun presuntzioaren agerpena nulua da Gacaca prozesuetan. Bidezko prozesu batean akusazioari dagokion frogaren zama akusatuari egokitzeak, nahiz eta jazarpena ofizioz hasi, akusatuak berak benetan izan beharko lukeen zalantzaren onura desagertzea eragiten du. Defentsa gabezi argi hau, are okerragoa bihurtzen da zuzenbidean profesionala den baten bidez defendatua izateko eskubidea ukatzean. Horren guztiaren ondorioz, errugabetasun presuntziorik betetzen ez dela baieztatu genezake, dena den, bidezko eskubide honen ukapena ez da prozesura mugatzen. Izan ere, organo judizialaren jarrera honek, errugabetasun presuntzio eza gizartera eta komunikabideetara zabaltzea eragiten du, hortaz, prentsak eta orokorrean gizarateak, akusatua errudun gisa deklaratzeko dute karguzko frogaren bitartez epaile eskudunaren aurrean epaitu aurretik.

4.4 Kasuaz informatua izan eta defentsa egokia prestatzeko denbora izateko eskubidea

Kasuaz informatua izateko eta defentsa egokia prestatu ahal izateko denbora izateko eskubidea Ruandar lege zein nazioarteko arauetan onartzen den baina Gacaca gorteek sarritan errespetatzen ez duten beste eskubideetako bat litzateke. Izan ere, sarritan akusatuak ez zuten leporatzen zitzaizkien delituen legezko jakinarazpenik jasotzen, ezta beharrezko aurretiazko informaziorik karguei zegokienez eta gehienetan ez zeukaten denbora nahikorik defentsa egokia prestatu ahal izateko, hainbestera non epaiketa egunean jakinarazten ziren kasuak existitzen ziren⁹¹. Gainera, arazoa larriagotu egiten zen akusatuak abokaturik izateko eskubidea ez zeukatelako.

Nahiz eta praktikan sarritan bete ez, 2001. urteko Gacaca legeak, jurisdikzioaren sortzaileak hain zuzen, zitazio prozedura bat garatzen zuen, besteak beste adieraziz epaiketarako data, ordua eta kokalekua, eta baita leporatzen zitzaizkion karguak ere. Zitazio hauek epaiketa baino 7 egun lehenago entregatu behar ziren, akusatuaren etxebizitzan edo haren azken etxebizitza ezagunean, aurre denbora hori errespetatzen ez zen kasuetan, epaiketa atzeratu beharko litzatekeelarik. Dena den, zenbait kasutan errore simple baten erruz, eta beste batzuetan nahita, akusatuaren absentsian ere epaitzea posible baitzen, zitazio horiek ez ziren bidaltzen, edo ez ziren bidalketa prozedurak errespetatzen, sinpleki akusatuaren lagun edo ezagunen bati helaraziz aipatutako zitazioa⁹².

⁹¹ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 34. or.

⁹² *Ibidem.*, 35,36,37. or.

Are gehiago, maiz, zitazioak okerrak ziren baita akusatuarekiko inputatzen zitzaizkion karguei zegokienez. Nazio Batuen Batzordearen arabera, zitazio batzuetan hutsik zeuden akusatuari leporatzen zitzaizkion karguak zehazteko atalak, beste batzuetan, oso orokorrak ziren, esaterako, “genozidio” edo “hilketa” leporatuz inolako zehaztasunik gabe, defentsa egokia prestatzea ezinezkoa bilakatuz. Garrantzitsua zen eta sarri zitazioek falta zuten beste informazio bat delituaren kategoria zen, zeinek jurisdikzioa eta zigorra zehazten zituen. Guzti hori dela eta, existitzen dira kasuak non akusatuak beraien kabuz ikertu behar zituzten kasuak eta, maiz, ordaintzea beharrezkoa zen haien aurkako inputazioak ezagutu ahal izateko. Beste batzuetan, nahiz eta kasuaz informatua izateko eskubidea bete, jakinarazpenak beranduegi ematen ziren, babes judizial efektiborako eskubidea urratuz, izan ere, gehienetan, akusatuak beraien aurkako karguen inguruko berririk ez zuten lortzen entzunaldiko eguna iritsi arte. Denbora urritasun horrek, testiguak aurkitzeko zailtasunak sortzen zituen, bereziki garrantzitsuak zirenak prozesuaren bidea akusatuaren alde edo aurka bihurtzeko, genozidio delitu gehienak lekukoak testigantzen mende baitzeuden. Gehienetan beharrezko epeak errespetatzen ez zirenez entzunaldi batzuk atzeratu ziren arren, 2001. urteko Gacaca legeak zehazten zuen bezalaxe, beste asko bere horretan mantentzen ziren⁹³.

Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 14. artikuluari buruzko Nazio Batuen 32. behaketa, kasuaz informatua izan eta defentsa egokia prestatzeko denbora izateko eskubideaz mintzatzen da, esanez inongo atzerapenik gabe, ulertzeko moduko hizkuntzan eta modu zehatz batean karguen izaeraz zein arrazoiez informatua izateko eskubidea delitu jakin bat leporatzen zaion edonori aitortzen zaiola, prozesu penal baten barneko lehen berme bezala kalifikatuz. Atzerapenik gabe informatua izateko eskubideak, informazioa agintari publiko batek, pertsona baten aurkako akusazioa egin bezain laster emateari egiten dio erreferentzia, helburutzat izanik ez soilik akusatuaren ziurgabetasun egoera luzatzea, baita egoera hori justiziaren intereserako izan dadin. Gainera, absentzian epaitzen diren kasuetaz ere ari da behaketa, esanez akusazioen eta epaiaren berri emateko neurri edo berme guztiak hartu beharko direla⁹⁴.

Bestalde, defentsa egokia prestatzeko adina denbora izatearen bermeari dagokionez, Nazio Batuek adierazten dute “beharrezko denbora” hori kasu bakoitzera mugatzen dela, ezaugarrien arabera interpretatu beharreko alorra izanik. Dena den, adierazten da abokatuei

⁹³ *Ibidem.*, 38, 39,40.or.

⁹⁴ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia.* 32. Behaketa orokorra. 31.parr.

dagokiela beharrezko defentsa prestatzeko denbora falta salatzea⁹⁵, baina, Gacaca jurisdikzioan abokatuak onartzen ez zirenez, ezinezkoa litzateke azken hau betetzea.

Bidezko epaiketa bermatzeko eta defentsa gabezia egoerak saihesteko eskubide hau Espainiar legegileak bai Konstituzioaren 24.2. artikuluan zein Prozedura Kriminalaren Legearen 118.1.a) eta 520. artikuluetan babesten du. Era berean, GEEHk, 5.2. artikuluan argitzen du aldez aurretik atxilotua izan den orori, lehenbailehen eta modu ulergarrian, atxiloketaren eta haren aurkako akusazioaren arrazoiak jakinarazi behar zaizkiola.

Jurisprudenzia nazionalari dagokionez, Auzitegi Gorenak, Maiatzaren 19ko 426/2016 epaian adierazi izan du inputatu gisa deklaratzeko eragin duten gertakariak ezagutzeko eskubidea ezinbesteko eskubide bat dela, *sine qua non*, eta eskubide hau ez dela soilik gertakari horiek ezagutzera mugatzen, emandako edozein aldaketa ezagutzera zabaltzen baita⁹⁶. Gainera, egozpena ezagutzeko eskubideak, egitateen deskribapenez gain, dagokion tipo penala ezagutzeko eskubidea batzen du. Organo berberak, urriaren 10eko 1674/2002 epaian, bestalde, adierazi izan du akusazio printzipioa Espainiar Konstituzioaren 24.2. artikuluko defentsa eskubidearen muinaren zati bat dela. Honela, haren aurka zuzentzen den akusazioaren inguruko informazioa izateko eskubide horrek elementu bi bildu behar dituela baieztatzen du: alde batetik, leporatzen den egitatea, perfekzio maila, parte hartzea eta inguruabarrak, bestetik, deskribatutako egitatearekiko koherentea den kalifikazio juridiko egokia⁹⁷.

GEEAari dagokionez, interesdunaren aurkako akusazioaren berri emateko orduan izan beharreko kontu handia nabarmentzen du, akusazio aktaren inportantzia azpimarratuz, azken honen jakinarazpenetik aurrera auzipetuak bere aurka aurkeztutako egitateen oinarri juridiko eta faktikoaren berri izan behar duelarik. Espainiar AGren jurisprudenziarekin bat eginez, europar auzitegiak ezartzen duen betebeharra ez da mugatzen soilik akusazioaren kausaz informatzera (akusazioaren oinarri diren egitate materialak), gertakariari emandako kalifikazio juridikoaz ere informatu behar dela adierazten baitu organoak. Auzitegiak uste du, akusazioaz informatua izateko eskubide hau, GEEHren 6.1. artikuluko bidezko prozesurako eskubidearen barnean baloratu behar dela, zigor arloan akusatuari dagozkion karguen informazio zehatz eta osoa ematea, zein jurisdikzioaren kalifikazio juridikoa ezagutzea prozesuaren funtsezko baldintza izanik. Azkenik, nahiz eta GEEHren 6.3. artikuluko

⁹⁵ *Ibidem.*, 32.parr.

⁹⁶ Auzitegi Gorenaren Epaia, 426/2016, 2016ko maiatzaren 19koa. 8. Zuzenbideko oinarria.

⁹⁷ Auzitegi Gorenaren Epaia, 1674/2002. 2002ko urriaren 10ekoa. 3. Zuzenbideko oinarria.

xedapenek informazio hori emateko unean baldintza formalik ezarri ez, aurreikusteko modukoa izan behar dela baieztatzen du GEEAk⁹⁸.

Horregatik guztiagatik, prozesuan abokatu laguntza ukatzeak eragindako defentsa egoki eta sendo bat prestatzeko aukera eza, larriagotu egiten zen akusatuak, bere defentsa propioa prestatzeaz arduratzen zen horrek, horretarako beharrezko jakituria, informazioa eta denborarik ez zituenean. Hau da, arestian aipatutako guztiari gehitu beharko genioke akusatuek sarritan ez zutela ideiarik ere ez leporatzen zitzaizkien eta, honenbestez, defendatu behar ziren akusazio horietaz. Guzti honek agerian uzten zuen haiek jasandako babesgabetasuna, eta ezinezkoa bihurtzen zuen beharrezko defentsa sendo hori prestatzea, prozesuaren indarrak desorekatuz, nola ez, akusatuen kaltetan.

4.5 Nork bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubidea

Nork bere buruaren aurka ez deklaratzeko edo sinpleki ez deklaratzeko eskubidea, gizabanako orok egotz dakizkiokeen egitate antijuridikoen egiletza ez aitortzeko, ezta zentzu horretan deklaratzeko duen eskubidea da, bidezko prozesurako bermeetako bat izanik. Bestalde, 2004. urteko Gacaca legeak ez du ildo berdinetik jarraitzen, batez ere 29. artikuluari dagokionez, zeinetan ondorengo hau irakur genezakeen: “Berak ikusitakoaz edo ezagutzen duenaz deklaratu nahi ez duen oro, zein salaketa kalumniatsua egiten duena ere, Gacaca Auzitegien bidez epaitua izango da”⁹⁹. Nahiz eta bere horretan betebeharrak hitza agertzen ez den, alderantzizko irakurketa bat eginez antzeman genezake betebeharrak baten aurrean gaudela.

Izan ere, akusatuak lekukotzak ematera behartzen ziren, epaiketan isilik mantentzeko eskubidea ukatuz, eta aurretiaz aipatutako errugabetasunaren presuntzioa alderantzikatuz, akusatuak izanik beraien errugabetasuna frogatu behar zutenak eta ez ordea alderantziz, nazioarteko zuzenbideak agintzen duen bezala, eta errugabetasun presuntzioaren kontra. Gainera, *Avocats Sans Frontieres* (Mugarik Gabeko Abokatuak), prozesuaren monitorizazio programa bat gauzatu zuen gobernuz kanpoko erakundeak kezkatuta adierazi zuen bezala, akusatuak testigantza eman aurretik egia esango zutela zin egitera behartzen ziren¹⁰⁰. Horrekin guztiarekin batera, abokatu faltak, oraindik eta larriagoa bihurtzen zuen akusatuen defentsarako gabezi hori.

⁹⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 2016/30. 2016ko otsailaren 23koa. 22,23,24. parr.

⁹⁹ 16/2004 Legea, Gacacako auzitegien antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua ezartzearen ingurukoa. 2004ko ekainaren 17.

¹⁰⁰ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 36.or.

Eskubide Zibil eta Politikoen Itunaren 14. artikuluan babesten den heinean, Nazio Batuen 32. behaketak jorratu duen eskubidea izan da, esanez babes hori, akusatuen gaineko presio fisiko edo psikologikorik ez jasateko eskubide bezala interpretatu behar dela, errudunak direla deklaratzeko aldera. Arrazoi handiagorekin, adierazten da larriagoa litzatekeela akusatua paktuko 7. artikulua¹⁰¹ aurka tratatzea, horrela eginez gero deklarazio, aitorten eta antzekoak, frogetatik kanpo geratu beharko zirelarik¹⁰².

Espanian, GEEHn ez bezalaxe, Konstituzioaren 24.2. artikuluan zein Prozedura Kriminalaren legeko 520.0.b) artikuluan berariaz babesten da autoinkriminazio ezarako eskubidea, eta jurisprudentziak ere ildo berbera jarraitzen duela baieztatu genezake.

Auzitegi Konstituzionalak, maiatzaren 16ko 127/2000 epaian adierazi bezala, autoinkriminazio ezarako oinarriko eskubideak “defentsa eskubide orokorraren berme edo eskubide instrumentalak dira, eta eskubide hori babesten dute adierazpen pasiboan, hau da, inputazioaren xede den edo izan daitekeen subjektuaren jarduerarik ezarekin egikaritzen dena. Horrenbestez, subjektu horrek prozesuan bere burua defenda dezake, bere interesetarako egokien deritzon moduan, eta ezin da inola ere behartu edo bultzatu, inolako hertsadurapean, bere buruaren aurka deklaratzera edo bere burua errudun deklaratzera¹⁰³”. Epaiaren irakurketarekin jarraituz, GEEAri erreferentzia egiten zaio, adieraziz nahiz eta GEEHko 6. artikulua berariaz adierazi ez, autoinkriminazio ezarako eskubidea edo bere buruaren aurka ez egiteko eskubidea, nazioartean orokorrean onarturiko arauak direla, eta 6. artikulua horrek ezarritako edo babestutako bidezko prozesuaren funtsa osatzen dutela. Honela, akats judizialak saihestea bilatzen da, akusatuak agintaripeko hertsapenaren aurrean babesteaz gain, eta zuzenean 6.2. artikuluko errugabetasun presuntzioarekin lotzen da.

Europar Batasuneko 2016/343 Zuzentarauak, norbere aurka ez deklaratzeko eskubidea errugabetasun presuntzioaren alor garrantzitsu bat dela adierazten du, eskubidea ezin delarik ikertu edo akusatu baten aurka erabili eta ez delarik ulertu behar interesdunak arau hauste penal hori egin izanaren frogatzat. Era berean, bere buruaren aurka ez deklaratzeko eskubide honek ez die agintariei ikertu edo akusatuengandik lor daitezkeen

¹⁰¹7. art: Nadie será sometido a torturas ni a penas o tratos crueles, inhumanos o degradantes. En particular, nadie será sometido sin su libre consentimiento a experimentos médicos o científicos.

¹⁰² GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 41.parr.

¹⁰³ Auzitegi Konstituzionalaren Epaiak, 127/2000, maiatzaren 16koa. 4. Zuzenbideko oinarria.

bestelako frogen lorpenean eragotzi behar, hertsapen ahalmenaren legitimazioaren pean, esate baterako agindu judizial bidez lorturiko materialaren kasuan¹⁰⁴.

GEEAren jurisprudenziari dagokionez, bestalde, GEEHn aipatu ez arren, autoinkulpazio ezarako eskubidea, nazioartean oro har onartua izan den bidezko prozesuaren funtsezko bermea dela adierazi izan du. Eskubide honek, akusatua bera babesten du, akusazioak bere arrazoiak indarra edo hertsapena baliatu gabe lortu beharko dituelarik, izan ere, europar organoaren arabera ordena publikoa ere ez da nahikoa eskubide hauek baztertzeko.

Bestalde, ez deklaratzeko eskubideari dagokionez, GEEAk hau aitortu edo onartu arren, zenbait epaitan absolutua ez dela adierazi izan du, *Murray* kasua erreferentziazat harturik. Izan ere, auzitegiaren arabera, akusatuaren isiltasunagatik haren aurkako ondorioak ateratzeko 6. artikulua urratu dezake, baina ez beti, beharrezkoa izango delarik inguruabar guztiak kontutan hartzea, barne auzitegiek froga elementuak hautemateko orduan eman zieten pisua zein egoeraren derrigortze maila esate baterako. Europar auzitegiak eskubide hau aurretik aipatutako autoinkulpazio ezarako eskubidea bezala, bidezko prozesu baterako funts bezala kontsideratzen duen heinean, jurisdikzio organoek isiltasuna akusatuaren aurka erabili aurretik zuhur aritu beharko direla adierazi izan du, GEEHren 6. artikulua ez urratzeko. Hori dela eta, epai kondenatorioa galderei erantzuteko unean isiltasun horretan oinarritzea bateraezina dela onartzen du auzitegiak, baina debeku horrek ez lukeela eragotziko isiltasun hori kontutan hartzea, akusatuaren aldetiko azalpenen bat behar den momentuan edota frogak konbentzimendu indarra aintzat hartzeko unean¹⁰⁵.

Beraz, europar auzitegiak adierazi izan du kasu bakoitzean aztertu beharreko arazoa dela, auzitegiek ezingo dutelarik akusatua erruduntzat hartu isilik egote hutsagatik. Ordea, akusatuaren aurkako frogak, azalpen bat eska dakioken egoeraren batean jarriko balute akusatua, orduan zentzuzko arrazoiak legokeela ulertuko litzateke, eta azalpen falta horrek bere aurka egitea gerta liteke. Era berean, akusatuak ez balu azalpenik emateko besteko karguzko frogarik aurkeztu, azalpen falta hori ez litzateke nahikoa auzitegiak akusatuaren aurka erabakitzeko. Laburbilduz, GEEAren jurisprudenziak ez du kargu froga nahikoa izatearen falta akusatuaren isiltasunarekin konpontzen, isiltasuna alde batera utzita, froga nahikotasun hori ezinbestekoa delarik. Hortaz, behin errugabetasun presuntzioa hausteko

¹⁰⁴ Europar Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/343 Zuzentaraua, 2016ko martxoaren 9koa. 27-30 parr.

¹⁰⁵ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 129/2000, maiatzaren 2koa. 56.parr

kargu froga nahikoa dagoenean, orduan inputatuak azalpenik ez ematea erabili liteke bere aurkako argudio gisa. Horrela egingo ez balitz, frogaren zamaren printzipioari bira emateko arriskua legoke, frogaren zama akusatuari egokituz, AKk behin eta berriz adierazi bezala¹⁰⁶.

Laburbilduz, ez deklaratzeko eskubidea eta beraz, autoinkulpazio ezarako eskubidea zuzenean lotuta daude errugabetasun presuntzioaren eskubidearekin. Gacaca prozesu askotan, azken eskubide hau betetzen ez zenez, akusatuari ere ez zitzaion jakinarazten autoinkulpazio ezarako eta ez deklaratzeko eskubideaz, bidezko prozesu baterako estandarrek bideratzen duten bezala. Are gehiago, akusatuari ohartarazten zitzaion hori egin ezean, Gacaca legearen 29. artikulua araberaz epaitua izango zela. Egoera guzti honetan, akusatua prozesuan bakarrik zenez, areagotu egiten ziren haren zaugarritasuna, babesgabetasunik gabeko bidezko prozesurako eskubidea urratuz.

4. 6 Inkriminazio bikoitzerako debekua

Sistema legal gehienek, horien artean Ruandako Kode Kriminalak, inkriminazio bikoitzerako debekua babesten dute, honela, akusatua behin epaituta, ezingo da delitu berdinatik berriz epaitu (gauza epaitua), sistemaren gaineko konfiantza publikoa sortuz.

Teorian, auzitegi konbentzionaletan hartutako erabakiak errekurragarriak lirateke apelaziorako auzitegi konbentzionaletan, eta berdina gertatu beharko luke Gacaca jurisdikzioan, apelazioa, apelaziorako Gacaca auzitegiei egokituz. Hala ere, 2004. urteko Gacaca legeak honen salbuespen bat agertzen du, aukera emanez Gacaca auzitegi arruntei, auzitegi konbentzionaletako lehen zein bigarren instantzietan epaitutako delituengatik pertsonak auziperatzen, kondenatuak zein absolbituak izan ziren kontutan hartu gabe¹⁰⁷. Hori dela eta, ikusi genezake subjektu eta jokabide berdinak, bi prozedura ezberdinetan epaitzeko aukera zabaltzen dela.

Gauza epaitua eta *non bis in idem* printzipioaren inguruan, Nazio Batuek adierazten dute berme honen bidez erruduna edo errugabea deklaratu den gizabanako oro ezingo dela delitu berdinatik auzitegi berdin edo desberdin baten aurrean epaitua izan, adibide gisa jarritz, auzitegi zibil batek epaitu eta absolbitu duen gizabanakoa ezingo dela delitu berberengatik auzitegi militar baten aurrean epaitu¹⁰⁸. Gure kasuari helduz, egoera hori

¹⁰⁶ Auzitegi Gorenaren epaia 2014/487 ekainaren 9koa. 9. Zuzenbideko oinarria.

¹⁰⁷ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 48.or.

¹⁰⁸ GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). *Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. 32. Behaketa orokorra. 54.parr.

gertatzen dela baieztatzeko, Gacaca legeak instantzia bereko auzitegi arruntetan lehenago eta Gacaca auzitegietan ondoren epaitzea ahalbidetzen baitu, Nazio Batuen irizpideak kontraesanek. Hala ere, azpimarratu behar dira salbuespenezko egoerak, hala nola ezagutza berriko frogen kasuak, non berriro epaitzea baimentzen den.

Non bis in idem printzipioa, espainiar legeri dagokionez, Konstituzioko 25.1. artikuluan, Kode Penaleko 67. artikuluan, eta Sektore Publikoaren Erregimen Juridikoa arautzen duen 40/2015 legearen 31. artikuluan babesten da. Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentziari dagokionez, epaiek desberdindu egiten dute *non bis in idem* prozesalaren eta materialaren artean.

Non bis in idem prozesala, ikuspegi administratibo batetik sortzen den bermea litzateke. Izan ere, honen bidez, administrazioari betebeharrak ezartzen dio legegileak, alde batetik, delitu izan daitezkeen kasuetan zigor prozedura eten edo ez hasteko betebeharrak sortuz eta, bestetik, zigor arloko epai irmoetan frogatutzat hartu diren egitateen deklarazioa errespetatzeko betebeharrak ezarriz¹⁰⁹. Dena den, ruandar kasuan arazoa bi jurisdikzio penalen artean sortzen denez, hau baztertuko genuke.

Non bis in idem sustantibo edo materialari dagokionez, gizabanako ororen bermea litzateke, legez kontrako berdinatik birritan zigortua ez izateko. Printzipio honen bidez babesten den “berdin” hori identifikatzeko, beharrezkoa litzateke AKren jurisprudentziaren esanetan nortasun hirukoitza baieztatzea, subjektuari, gertakariari eta oinarriari dagokionez. Gainera, berme hau arau hausteen tipikotasun eta legezkotasun printzipioei loturik legoke, horiek urratuz, gehiegizko zehapenak herritarren zigor aurreikuspenaren bermea hausten baitu, zehapen aniztasunaren ondorioz proportzionaltasun printzipioaz haratago doan zigorra ezarriz, legez aurreikusi ezina dena¹¹⁰.

1984ko azaroaren 22ko GEEHren 7. protokoloaren berrespen agiriaren 4. artikuluan arabera, estatu bereko jurisdikzio organoek ezingo dute inor epaitu ezta zigorrik ezarri, estatu bereko legearen arabeko prozedura penal bateko behin betiko epaiaren ondorioz aurretiaz absolbitua edo kondenatua izan denean arau hauste berdinatik¹¹¹. Honen harira, GEEAk, estatuz haratago doan irismena duen heinean, adierazi izan du barne zuzenbidearen bidez egindako kalifikazio juridikoa ezin dela irizpide bakarra izan *non bis in idem* printzipioa

¹⁰⁹ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 177/1999. 1999ko urriaren 11koa. 3. Zuzenbideko oinarria.

¹¹⁰ Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 2/2003, urtarrilaren 16koa. 3. Zuzenbideko oinarria.

¹¹¹ Europako Kontseilua. (1984). Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Hitzarmenaren 7. Protokoloa. 4.art.

aplikatzeko 4. artikulua araberan, izan ere, horrela egingo balitz, xedapenaren aplikazioa estatu kontratugileen mende legoke. Hori dela eta, auzitegiak adierazi izan du 4. artikuluko “prozedura penal” terminoa, GEEHren 6. eta 7. artikuluetan ezartzen diren “zigor arloko akusazio” eta “zigor” terminoei dagozkien printzipio orokorren argitara interpretatu behar direla. Auzitegiaren jurisprudentziak, 3 irizpide ezarri ditu zigor arloko akusazio bat ote dagoen erabakitzeko orduan kontutan hartu beharrekoak, Engel-en irizpide bezala ezagutzen direnak. Lehen irizpidea, delitua legedi nazionalean kalifikatzea litzateke; bigarrena, delituaren izaera da, eta hirugarrena, interesdunak jasan dezakeen zigorraren larritasun maila¹¹².

Horregatik guztiatik, prozesu honetan ez da betetzen inkriminazio bikoitzerako ezintasunaren printzipioa, *non bis in idem* printzipioa urratuz era berean. Izan ere, Gacaca Legeak aukera ematen du subjektu bera auzialdi berean baina jurisdikzio ezberdinen bitartez epaitzeko, errekursoan bada ere, delitu egitate beragatik, jurisdikzio arruntean kondenatua edo absolbitua izan ote den axola gabe. Gainera, aukera honek printzipioak urratzeaz gain, zentzu handirik ez duela esan genezake. Izan ere, kontutan hartzen baldin badugu jurisdikzio arrunta Gacaca jurisdikzioa baino lehenago sortzen dela, eta azken horren sorreraren arrazoa lehen honen gabezietan oinarritzen dela, esan genezake jurisdikzio arruntaren behetik kokatuko litzatekeela azken hau. Beraz, ez luke zentzu handiegirik izango errekursoak beharagoko jurisdikzio honetan ebatzea, eta ez litzateke arraroa izango hainbestetan aipaturiko garaileen justizia egitearen arrazoa izatea, jurisdikzio arruntean gordetzen diren bermeak gogorragoak baitira.

4.7 Absentzia kasuetan epaitzea

Absentzian epaitzea ahalbidetzen da Ruandan, hau da, akusatutako pertsona bertan egon gabe epaitzea. Absentzian epaitze horren justifikazioa zera da, akusatuek ez luketela justizia egitea saihestu behar epaiketari bertan ez agertze hutsarekin¹¹³. Honela, Gacaca epaitegiek milaka pertsona auzipetu dituzte absentzian Gacaca jurisdikzioaren lege sortzailearen 78. artikulua¹¹⁴ araberan, baina nahiz eta Ruandar legea hautsi ez, legeak

¹¹² Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 2015/18. 2015eko urtarrilaren 27koa. 40,41.par.

¹¹³ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 55.or.

¹¹⁴ 40/2000 Lege Organikoaren 78. artikulua: Demandatua ez dagoenean emandako epaia baliozkotasunez jakinarazten da jakinarazpen egintza baten bidez, eta jurisdikzioko idazkariak huts egin duen alderdiari bidaltzen dio, oinarritzko organoen bitartez edo atxilotuta dagoen zentroko administrazioaren bitartez.

babesten zituen bestelako eskubideen gabeziak, bereziki problematiko bihurtu zituen epaiketa hauek.

Aurreko puntuetan aipatu bezala, defentsa gabezi egoerak bereziki problematikoak izan dira politika kutsudun kasuetan, eta ez dira gutxiago absentsia epaiketen kasuan. Kasu horiei dagokienez, *Human Rights Watch* erakundeak bildu izan ditu kasuak non akusatuari berari, prozesuaren berririk eman gabe, kondenaren jakinarazpena egin dioten, absentsian prozesatu eta kondenatu ondoren. Bada beste kasu politiko bat, erakunde berberak jasoa, non gizon bat, Estatu Batuetan konferentzia bat artatzen ari zen bitartean, ruandar lagunek kontaktatu zutela, kondenatua izan zela esanez. Hori dela eta, Estatu Batuetan asiloa eskatzea erabaki zuen¹¹⁵.

Hala ere, absentsian epaitu ziren kasu guztiak ez ziren arrazoi politiko edo pertsonaletan oinarriturikoak. Beste kasu batzuetan berriz, akusatuek herrialdetik ihes egin edo ezkutatu egiten ziren, justiziaz ihes egiteko. Badira kasuak non gizabanakoek alde egiten zuten epaiketa justurik izango ez zutenaren ustetan, kargu gehigarriak leporatuko zitzaizkienaren ikararekin, birritan epaituak izango zirenaren izuarekin edo ruandar agintari eta partikularrek Gacaca epaitegiak manipulatzeko ari ote ziren beldur zirelako, beren xede propioetarako¹¹⁶.

Espainiaren kasuan ordea kritikagarria litzateke Gacaca auzitegiek zeukaten aukera hau, audientzia printzipioa gailentzen baita hemen, nahiz eta salbuespenak existitzen diren delitu arinen kasuetan (zitazio egokiarekin egiten denean, akusatuaren absentsia justifikatu gabea izanda eta epaileak agerpena beharrezkotzat jotzen ez duenean, ofizioz edo alderdiek eskatuta (PKL 971.art)) eta prozedura laburtuan (eskatutako zigorra gehienez 2 urteko askatasun gabetze zigorra denean, akusatuaren absentsia justifikazio gabea, zitazio egokia eginda, epaileak epaitzeko elementu nahikoa daudenaren ustea izanda, betiere fiskaltzak edo akusazio partikularrak epaitzea eskatzean eta defentsari entzun ondoren (PZL 786.1.art)). Audientzia printzipio hau, zuzenbidearen printzipio orokorra da, zeinaren arabera inor kondenatua izango ez den entzuna izan gabe. Hau da, alderdiei prozesuan parte hartzeko aukera emango zaiela, aukera hori erabiliko ote duten kontutan hartu gabe¹¹⁷. Auzitegi Gorenaren epaiak ere ildo beretik doaz, esate baterako abenduaren 11ko 609/2019 epaian

¹¹⁵ HASKELL, L. (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*. 56,58.or.

¹¹⁶ *Ibidem.*, 61.or.

¹¹⁷ Real Academia Española. (d.g) Principio de audiencia. *Diccionario panhispánico del español jurídico (DPEJ)*.

adierazten da “ezingo dela inor arretarik gabe geratu legez ondorioztatutako bere uziari erantzun judiziala emateko asmoan, eta ezin dela kondenatu epaiketan entzun eta garaitu gabe (audientzia printzipioa eta defentsa eskubidea), prozesuan gainerako alderdien baldintza berberetan esku hartuz (berdintasun printzipioa)¹¹⁸”. Hortaz, Espainiar legediaren arabera, prozedura laburtuaren kasuan askatasun zigorra 2 urtetik gorakoa denean edota beste zigorren bat 6 urtetik gorakoa, zein prozedura arruntean, ezinezkoa izango da epaiketa garatzea, eta bertan behera geratu beharko da.

AGren uztailaren 7ko 598/2021 epaiak adierazten du epaiketan presente egoteko eskubidea ez dela absolutua, eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia (EJJA) ere pronuntziatu dela erregela orokor horrekiko salbuespenak daudela gogoraraziz: “Aipatutako jurisprudentziak aurreikusten dituen akusatuaren presentziaren aginduzkotasunaren salbuespenak 3 kasutara mugatzen dira, 2016/343 Zuzentarauaren 8. artikuluen 2., 5. eta 6. apartatuetan jasotako hiruretaratara¹¹⁹”. Europar Batasuneko Zuzentaru horren 8. artikulua adierazten du Estatu Kideek erabaki dezaketela akusatuaren faltan horren kondena zein absoluzioa ekar dezaketen epaiketak garatzea baldin eta akusatuari behar bezala jakinarazi bazaizkio epaiketa zein ez agertzearen ondorioak, edo akusatua epaiketaren berri izan ondoren, akusatuak berak edo estatuak izendatutako letradu batek defendatzen badu. Beraz, zuzentaru honek aukera bat ematen die Estatuari, baina Espainiaren kasuan legegilea aurreko salbuespenetara eusten dela esan genezake.

GEEAk adierazi izan du zigor arloan akusatua den orok auzitegian egoteko duen eskubidea bermatzeko betebeharra GEEHren 6. artikuluetako funtsezko eskakizunetako bat dela. Horregatik, behin akusatuari jakinarazpena eginda horrek bere eskubideari uko egin dizkioten kasuetatik kanpo, 6. artikuluko xedapenetan jasotako printzipioen aurkako prozedura kriminal baten aurrean egongo ginateke¹²⁰.

Konklusio gisa, onargarria litzateke arrazoitzea prozesuan ez agertzeak ezin duela justizia egitea saihestu, baldin eta akusatua jakitun den beraren aurkako prozesua epaitzen ari dela. Bestalde, Gacaca prozesuetan audientzia printzipioaren salbuespen hori testuinguru errealean batetik aztertu beharko litzateke. Izan ere, jokoan dauden zigorren larritasunak ez zuen bat egiten zitazioak entregatze orduan beharrezkoa litzatekeen seriotasunarekin, sarritan akusatuak zehapenaren jakinarazpena, prozesuaren jakinarazpena baino lehen jasotzen

¹¹⁸ Auzitegi Gorenaren Epaiak 609/2019, abenduaren 11koa. 1. Zuzenbideko oinarria.

¹¹⁹ Auzitegi Gorenaren Epaiak, 598/2021, uztailaren 7koa. 2. Zuzenbideko oinarria.

¹²⁰ Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaiak 2018/174869. 2018ko ekainaren 12koa. 63.parr.

zutelarik. Azken finean, prozesu egoki baterako berme gabezia eta eskubideen urraketa guzti hauek elkar loturik zeudenez, testuinguru oso batetik ikertzea beharrezkoa litzateke, benetan, babesgabezia nabarmena sorrarazten zuten prozesuak zirela konturatzeko.

5. JUSTIZIA ERRESTAURATIBOA ESKALA HANDIKO DELITUETAN

Genozidio osteko egoerari irtenbidea emateko, Ruandako Gobernuak justizia errestitutiboan¹²¹ oinarrituriko sistema komunitario bat sortzea erabaki zuen, antzina zonaldean existitzen ziren Gacaca auzitegiak erreferentziatzen harturik. Juridikoki, behin eta berriz esan bezala, kritikagarriak ziren oso, hala ere, testuinguruaren benetako azterketa sakona egin ostean irtenbide egokiena zirela baieztatu zutenak ere bazeuden.

Justizia errestitutiboaren¹²² defendatzaileek, jurisdikzio hau gogorki zapaldu izan dute sortu bezain prontotik, adierazten baitute adiskidetzak berarekin dakarrela nork bere buruarekiko zein besteekiko konfiantza indartzea, giza eskubideen eta demokraziaren kultura ezarriz, eta justizia errestitutiboa dela bi helburu horiek lortzeko tresna egokiena. Ideia honen bitartez, zenbait onura sor daitezkeela defendatu dute, besteak beste, mendeku neurrigabeak saihestea, erantzuleak boterera itzultzea saihestea, biktimekiko betebeharrak bat betetzea, erruduntasuna indibidualizatzea, legitimazio zein demokratizazio prozesuak indartzea, eta errugabetasunaren ideia haustea¹²³. Praktikan honen defendatzaileek, delitugilearengan jartzen dute arreta, izan ere, sinesten dute, legez errudun gisa deklaratu izan den horrek egindakoagatik ordaindu behar duela, zigor bezala¹²⁴.

Genozidio osteko Ruandan, kriminalen auziperatze penala gobernuak zituen helburuetako bat besterik ez zen, horren lorpenerako beste helburu batzuk betetzea beharrezkoa zelarik. Sistema judizialak berreraikipena behar zuen, baita gainerako funtzio publiko guztiek eta segurtasun fisikoa bermatu behar zen, biktimak sendotu eta abar. Hori

¹²¹Justizia errestitutiboa zigor arloko justizia kontuan hartzeko beste modu bat da, pertsonen eta harremanen egindako kalte konpontzen kontzentratzen dena, delitugileak zigortzen baino gehiago. Justizia errestitutiboa prozesu gisa ulertzen da, non delitu bat egitearen ondorioz sortutako gatazka batean parte hartzen duten alderdiek kolektiboki ebatzen duten hura, delituaren ondorioak eta horrek etorkizunerako dituen ondorioak jorratuz. Prozesu horretan nahitaez parte hartzen dute: biktimek, biktimarioek eta komunitateak. Honek, delituak eragindako pertsonen arreta handiagoa ematen die, gizarteko kohesio soziala optimizatzen duelarik aldi berean. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.redalyc.org/pdf/876/87602012.pdf>

¹²² Justizia errestitutiboa zigor-arloko justizian agertzen dena da, delitugileak zigortzean oinarritzen dena, biktimari eragindako gaitzagatik. Legegileak neurtzen du kriminalak erkidegoko kide baten aurka egindako delituagatik konpentsatu behar duen zigorra. Justizia horretan, delitua Estatuaren eta delitugilearen arteko arazoa da, eta biktimak, haren familiak edo komunitateak ezin dute modu aktiboan parte hartu, nahiz eta delituarekin sortutako konponbidea bilatzeko interesa izan. Informazio gehiago hurrengo estekan eskuragarri: <https://www.redalyc.org/pdf/876/87602012.pdf>

¹²³ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 98. or.

¹²⁴ ZEHR, H. (2007). *El pequeño libro de la justicia restaurativa*. 29.or.

dela eta, justizia erretributiboan oinarrituriko auziperatze prozesu bati lehentasuna emateak zenbait arrisku politiko ekar zitzakeen, esate baterako, erabaki judizialtan oinarrituriko populazioaren zati baten kanporatze sozialak, kontsolidazio demokratikoaren oztopo gisa jardun zezakeen. Era berean, momentuko bake egoera ezegonkortzea edo administrazioko langileen purga sakon baten ondoriozko garapen ekonomikoaren etendura, egoera posibleak lirateke¹²⁵. Gainera, delitugileak talde nabarmen bateko kide gisa identifikatzen direnean, gure kasuan bezalaxe, justizia erretributiboak daukan beste arrisku larri bat gehiegizko zigor eta mendekuen da, izan ere, gatazka oldarkorrak larriagoak eta honenbestez arriskutsuagoak izaten dira taldeen arteko testuinguruetan, pertsonen artekoetan baino¹²⁶.

Ankerkeriaz beteriko 100 egun hauen ostean justizia erretributibo eraginkor bat aurrera eramatea zaila litzateke materialki, eta justizia errestituatiboak aurkezten dituen gabezia orokor asko izango lituzke. Izan ere, kasu honetan gertatu zen bezala, sistema judiziala erabat txikituta zegoen, zuzenbidean adituen zati handi bat errefuxiatu edo genozidioaren biktima izan baitziren. Horrez gain, ezegonkortasun garai honetan frogen suntsipena ere erraza zen, batez ere, segurtasun gorputzak berreraiki behar zirelako. Hori dela eta, sistema arbitrarioagoa bihurtuko litzateke, aipaturiko eraginkortasuna lortzea ezinezkoa izanik, sistemaren gaineko konfiantzak bertan behera eginez¹²⁷.

Aurrekoaren ildotik, kriminalen auziperatze masiboak trantsizio aldietan pairatzen dituen zailtasunen artean zenbait oztopo gehiago aipatu behar dira. Alde batetik, basakeria masiboen testuinguruan ankerkerien irismen kuantitatibo zein kualitatiboa izugarri handiak dira, hau da, delitugileen kopurua erraldoia izateaz gain, egindako krimenak imagina daitezkeen larrienak dira. Ondorioz, zigor justizia eredutik eratorritako prozesuen iraupen zein kostuak gehienetan ezinezkoa bihurtzen dute justizia erretributibo errealista bat aurrera eramatea. Izan ere, prozesu judizial luzeegi horiek adiskidetze nazionala eragotzi eta lehengo indarkeria elikatu zuten gizarte arazoak indartu ditzakete¹²⁸. Bestetik, gehienetan, herrialdeen sistema penalak ez daude gatazka horien neurrira egokituta, “larrialdi” justizia bihurtzen direlarik eta, honenbestez, hainbat berme eta eskubide urratzen dira¹²⁹. Ruanda honen adibidea litzateke, izan ere, gatazka 1994an izan arren, genozidio legea ez zen 1996ra arte egin, eta herrialdeak etorkizunera begira aurrera egiteko zeukan premiak aipaturiko

¹²⁵ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 102. or.

¹²⁶ WENZEL, M.; PLATOW M.; OKIMOTO T.; FEATHER N.T. (2007). *Retributive and Restorative Justice*. 384.or.

¹²⁷ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 104. or.

¹²⁸ YEO, G. (2020). *Restorative Justice as Response to Atrocity: Profound or Merely Pragmatic?*. 1.or.

¹²⁹ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 105. or.

“larrialdi” justizia egitea eragingo lukeelako. Premia honek, era berean, auziperatzeen bizkortasuna ekarriko luke, akusatuen bermeak baino prozesuaren abiadura lehenetsiz.

Azken finean, egoera edozein izanda ere, justizia erretributiboak zenbait gabezia orokor ditu. Justizia mota honek egile bat aurkitzeko duen mendekotasunak esan nahi du justizia gehiago bideratzen dela delitugilearengana biktimarengana edo komunitatearengana baino. Adiskidetze ekimenak erasotzailearengan zentratzen direnez, biktima, funtsean, adiskidetze prozesutik kanpo geratzen da, eta are gehiago kentzen zaio hain beharrezkoa duen berrezarpena. Azkenean, biktimek zein egileek beren burua “biktima” gisa ikusten dute, ez direlarik gai gatazka osteko zauriak sendatzeko, haien arteko banaketa indartzen edota inposatzen baita¹³⁰. Gainera, prozesu hauek birbiktimizazioa ekar dezakete, sarritan, biktimen aurkako ingurune bihurtzen baitira epaiketak, trauma eta umiliazio ugari sor ditzakete eta. Azkenik, prozesu penalaren erabakia errudun edo errugabea izatera murrizten den heinean, erabaki horretara iristeko informazio fluxua murrizten da, delitugile kopuru masiboen kasuan sarritan erruduntasuna eta errugabetasuna nahasten direlarik¹³¹.

Behin justizia erretributiboaren inguruan hitz eginda, justizia errestitutiboa aztertu aurretik aipatu beharreko beste alternatiba bat amnistiarena da. Amnistia, erantzukizun penala azkentzen duen delitu jakinen barkamena litzateke¹³². Amnistiaren arrazoa batzuetan isiltasuna bera izaten da, hau da, ezjakintasuna, aldiz, beste batzuetan, iraganaren irakurketa selektiboaren inposizioa da, zenbait gertaera ezkutatzeko agintariak nahita egindako ahaleginaren emaitza¹³³. Honen adibide litzateke Tutsiz osaturiko Ruandako Fronte Patriotikoaren kideen egoera, zeintzuek nahiz eta gerra zein gizateriaren aurkako krimenak egin, auziperatu gabe mantendu ziren¹³⁴.

Genozidio ostean herrialdearen kontrola lortu zuen gobernu berriak, Gacaca prozesutik at utzi zituen Tutsi etniako delitugileak. Haien esanetan, gerra krimen horiek genozidio edo gizateriaren aurkako krimenetatik bereizten ziren, Gacaca epaitegien eskumenez kanpoko delitu gisa kalifikatuz. Honela, nahiz eta Gacaca jurisdikzioaren sortzailea den legeak gerra krimen horiek sartzeko aukera eman, praktikan, gobernuak prozesutik kanpo utzi zituen. Azken finean, delitu berdinak modu bereizian kalifikatu dira

¹³⁰ PARENT, G. (2010). *Reconciliation and Justice after Genocide: A Theoretical Exploration*. 286.or.

¹³¹ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 104. or.

¹³² Real Academia Española. (d.g) Proceso judicial. *Diccionario de la lengua española*.

¹³³ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 108. or.

¹³⁴ GOLDSTEIN BOLOCAN, M. (2004). *Ruandan Gacaca: An experiment in Transitional Justice*. 16.or.

garaile edo galtzaileek egin dituztenaren arabera, Tutsien kasuan gerra krimen bezala izendatu diren bitartean, Hutuen kasuan genozidio krimen gisa kalifikatu direlarik¹³⁵.

Justizia errestitutiboak bere aldetik, bidegabekeriak biktimaren zein komunitatearen elkarlanaren bidez konpontzen ditu, zehapenen kausa diren jokabide okerrak identifikatuz. Azken helburua, biktima eta delitugileen arteko harremanen zein komunitatearekiko harremanen berrezartzea da¹³⁶. Hori lortzeko, 3 zutabe identifikatzen dituzte justizia honen defendatzaileek, biktimak, delitugileak eta komunitatea¹³⁷. Ruandar kasuan, Nazioarteko Auzitegi Penalaren gabeziak bat eta, honenbestez, populazioaren kexetako bat, haren kokalekua zen, Arushan baitzegoen, komunitatearen parte hartzea oztopatuz. Era berean, auzitegi arruntak ere hiriburuetan kokatzen zirenez, horietara joatea ezinezkoa suertatzen zitzaizen gizabanako askori, ordea, Gacaca auzitegien banaketa oso deszentralizatua zenez, ruandar komunitatearen parte hartzea areagotu zen, hiru zutabe hauek identifikatzea ahalbidetuz.

Justizia mota honen ezaugarriek, arazoa komunitatearena bihurtzen dute, helburua adiskidetzat soziala izanik. Prozedura arau malguagodun prozesuak dira, borondatezkoak eta normalean legezko ordezkariak profesional gabeak. Erabakiak presio sozialaren bitartez lortzen dira, izan ere komunitatearen parte hartzea handia da, arbitro edo epaileak ere bertatik eratorriz. Azken finean, talde ruraletara hoberen egokitzen diren prozesuak dira, sarritan adiskidetze, konpentsazio eta lehengoratzean oinarritzen direnak. Komunitateari zein biktimei hitza ematen zaie, prozesuaren parte direla sentiaraziz eta, era berean, gizartea osatzen duten gizabanako guztiak heziz¹³⁸. Ordea, justizia erretributiboak eragiten duena zera da, justizia kriminaleko erakundeek eta zuzenbidean profesionalak diren horiek gatazka lapurtu egiten dietela alderdi kaltetuei, gatazken bidez ikasteko eta hazteko aukera, eskubide eta betebeharra lapurtuz era berean¹³⁹.

Hiru subjektu identifikatzearen arrazoia zera da, justizia errestitutiboak uste duela biktimez gain komunitatea ere kaltetua izan dela, delitugilea bera ere ahaztu gabe¹⁴⁰. Horregatik, erasotzaileen kalteen zergatia ere ulertzea beharrezkoa da, izan ere, haien aitortpena eta arrazoen azalpena beharrezko bihurtzen dira kalte hori berrezartzeko unean.

¹³⁵ JOIREMAN, S.; COREY, A. (2004). *Retributive Justice: The Gacaca Process in Rwanda*. 18-19.or.

¹³⁶ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 110. or.

¹³⁷ ZEHR, H. (2007). *El pequeño libro de la justicia restaurativa*. 28.or.

¹³⁸ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 112. or.

¹³⁹ WENZEL, M.; PLATOW, M.; OKIMOTO, T.; FEATHER, N.T. (2007). *Retributive and Restorative Justice*. 377.or.

¹⁴⁰ ZEHR, H. (2007). *El pequeño libro de la justicia restaurativa*. 29-30.or.

Komunitatearen portaera funtsezkoa bilakatzen da erasotzaile horientzat, beraien betebeharrak betetzera behartuta eta babestuta sentiarazteko. Era berean, biktimak jasandako kalteei dagokienez, haiei eragindakoak soilik ez direla ulertarazten saiatzen da justizia errestitutiboa, komunitateak gertatutakoa sentitzen duela ikusarazteaz gain¹⁴¹.

Bestalde, autore askok adierazi izan dute gizarte batek giza eskubideen aurkako bortxaketa masiboak jasan izan dituenan ezinezkoa bihurtzen dela kalte guzti hori konpontzea edo, besterik gabe, inoiz gertatu ez balitz bezala, hura ezabatzea¹⁴². Ildo horretatik, justizia errestitutiboak ez du uste eragindako kalte hori ebaluatu daitekeenik gizarte testuinguru errealekin zerikusirik ez duen testuinguru batean eta, beraz, ezin hobeto egokitzen da planteaturiko erronkara¹⁴³. Gure kasuari helduz, zaila litzateke aitortzea egindako kalte guztia konponarazi daitekeela, hortaz, behin gatazkaren sorreraren atzean dagoen testuinguru ulertuta, justizia egitea posible litzateke.

Sistema guztiek bezala, bere ahulguneak ere baditu justizia errestitutiboak. Izan ere, alderdien negoziatio indarrean egon daitezkeen desparekotasunek lortutako erabakietan eragin dezakete. Era berean, buruzagi edo liderren leialtasun politiko edo boterean arabera erabakiak alde baten edo bestearen alde egitea gerta liteke. Azkenik, prozedura babesen eskasia ere nabaria izaten da prozedura hauetan¹⁴⁴. Gacaca jurisdikzioari dagokionez, behin eta berriz aipaturiko garaileen justiziari erreferentzia egin ahalko genioke puntu honetan, benetako berme guztiak dituen prozesu baterako bermeak ez errespetatzearen posible izan daitekeena.

6. AZKEN GOGOETA

Azken gogoeta egin aurretik, testuinguruaren laburpen txiki bat egitea interesgarria litzateke. Ruandar gizarteak, urte batzuk zeramatzan hura osatzen zuten 2 etnia nagusiak guztiz banaturik, XX. mendearen erdialdera arte zonaldea okupatu zuten mendebaldeko kolonoek eragin zuten egoeratik. 1994ko apirilaren 6an lehertu zen gatazka, ruandar presidentearen aurkako atentatu baten ondorioz eta, 100 egunen buruan, etnietako batek ia erabat amaitu zuen bestea. Beste genozidio batzuetan ez bezala, herritarren parte hartzea oso handia izan zen, eta, horregatik, esan daiteke kriminalen kopuruak ez zuela inongo

¹⁴¹ DE GAMBOA TAPIAS, C. (2020). *La justicia restaurativa en la justicia transicional: Una reflexión general para el caso colombiano*. 14.or

¹⁴² DE GREIFF, P. (2006). *Justice and Reparations*. 456.or.

¹⁴³ DE GAMBOA TAPIAS, C. (2020). *La justicia restaurativa en la justicia transicional: Una reflexión general para el caso colombiano*. 14-15.or.

¹⁴⁴ HUYSE, L. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. 113. or.

aurrekaririk izan. Nazioarteko laguntza eskasa zen, eta bat-batean estatuari planteatu zitzaion erronka ez zen batere apala.

Espetxeak ustezko kriminalez gainezka zeuden, nazioarteko jurisdikzioa eta ruandar jurisdikzio arrunta ez ziren gai akusatu guztiak prozesatzeko eta, biktimek, ez zeukaten inongo parte hartzerik prozesuetan. Jurisdikzio hauetako prozesuak garestiak ziren, eta baliabide ekonomikoak urriak. Kartzeletako gastuek bat-batean gora egin zuten genozidioa amaitu bezain laster, eta funtsak behar ziren gobernu, administrazio, justizia eta segurtasun kidego berri bat sortzeko. Horregatik, “Gacaca” jurisdikzioa sortu zen, jurisdikzio arin eta merkea, justizia errestituatiboan oinarriturikoa, egia argitzera eta Ruandarentzako etorkizun baketsu bat sortzera bideratua.

Hortaz, erabateko miserian zegoen herrialde honek berehalako mekanismo bat behar zuen etorkizun zabal eta oparago baterako bidea egiteko. Mendebaldekoentzako, sinpleena jurisdikzio hori kritikatzeko litzateke, ikuspegi juridiko zorrotz batetik, gure sistemaren antzekotasun handiagoa duten alternatibak proposatuz, jakina, justizia erretributiboaren oinarrietatik abiatuta, esanez akusatuarekiko guztiz bidegabea dela. Sistema komunitarioa kritikatzeko erraza litzateke, batez ere bidezko prozesu baterako bermeak errespetatzearen aldetik, alternatiba egingarri edo posibleak planteatzeko ordea, ez. Izan ere, gurean daukagun justizia erretributiboan oinarrituriko sistema ere ez litzateke inola ere gai izango ezaugarri antzekodun arazo bati aurre egiteko, non kriminalak ez ziren kartzeletan sartzen, ez zegoen ia baliabide materialik haiek epaitzeko eta garrantzitsuena, sistema judiziala ere nulua zen.

Nahiz eta akusatu guzti horiek epaitzea materialki ezinezkoa litzakeela defendatu justizia errestituatiboan zein erretributiboan oinarrituriko justizia baten bitartez, prozesuko gehiegikerien sententziak jurisdikzio honen benetako xedea zein den planteatzeko garrantzitsua, herriarentzako justizia egitea edo, aldiz, justizia hori garaileen alde egitea. Azterketa juridiko hutsetik, bigarren honen alde egingo genuke, jurisdikzio jasanezina baita, zalantza eta gehiegikeriaz bete. Hala ere, baliteke azken horretan aurkitzea jurisdikzio honen zergatia, izan ere, gerta liteke jurisdikzio honetik egin beharreko azterketa zuzenbidezkoa ez den beste modu batekoa izatea.

Joan den mendeko historia afrikarra markatu zuten pertsonaia ezberdinak pixka bat irakurri, gurea ez den beste modu batean pentsatzen dutela antzeman genezake. Izan ere, hain gogorak dira afrikarrek XX. mendean jasandako basakeriak, hala nola *apartheid*-a edo ruandar genozidioa, non benetan uste duten kontinenteak ezingo lukeela aurrera begiratu,

barkamenagatik ez balitz. Hori defendatzen zuen *Desmond Tutu*-k, “no future without forgiveness” adierazi zuenean: “*Ez dago etorkizunik barkamenik gabe ez litzateke soilik eslogan alai bat. Kontua da, bi pertsonen arteko harreman estuan edo talde etniko zein nazioen artean pentsatzen ari garela, eta ez legoke etorkizunik halako harremanetarako barkamenik gabe*¹⁴⁵”.

Desmond Tuturentzako barkamenak zera esan nahi zuen: ongia gaizkitik ateratzea, maitasuna gorrototik, argia iluntasunetik. Barkamena ez litzateke gauzak benetan ez bezalakoak direnaren itxura egitea, barkamena aurrez aurretik konta daitekeen zerbait litzateke. Barkamena errepresaliak hartzeko eskubidea joaten uztea da, leiho bat irekitzea bezala, aire freskoa gela itxian sartzeko, edota argia gela ilunean sartzeko. Beraientzat *ubuntu* afrikar espresioan datza, hau da, gizakia izatearen esentzia, zeinaren arabera pertsonak, pertsona diren beste pertsona batzuen bitartez¹⁴⁶.

Idea horri buelta batzuk eman ondoren, egia da gertakarien basakeria ikuspuntu kualitatibo zein kuantitatibotik hain handia den kasu hauetan barkatzen ikastea besterik ez dagoela. Hau da, 7 milioi inguruko biztanleria duen herrialde batean, non milioi bat inguruk beste hainbeste erail dituzten, zein da ondorengo belaunaldiari planteatzen diozun etorkizuna? Haienezako etorkizun duin bat emateko aukera bakarra barkamenaren eta birgizarteratzearen bidez lor daiteke, ez ordea etorkizunean eraginak ekar ditzakeen zigorraren bitartez. Justizia afrikarrak gurea ez den beste norabide bati jarraitzen dio, desorekak zuzentzera eta apurtutako harremanak konpontzera zuzentzen dena, aukera emanik kalte egileari komunitatean berrintegratzeko, egindakoa biktima zein komunitatearekin eztabaidatu ostean.

Aipatutako barkamenerako ezinbestekoa suertatzen da aurrerago aipaturiko 3 subjektuen papera, biktima, delitugile eta komunitatearena hain zuzen. Justizia errestituatiboak, hiru horien papera aurreikusten du bere prozesuetan, erretributiboak ordea ez. Delitugileak, egitateak eta horrek sorturiko eraginak onartzen ditu, honela biktima zein komunitatea barkatzen has daitezke. Prozesuan biktimaren parte hartzearekin, hura ahaztuta ez geratzea lortzen da eta, azkenik, guztien eztabaidaren bitartez, arau hauslea komunitatera itzultzeko prestatzen da, hari dagokion “zigorra” edo konpentsazioa ezarriz.

¹⁴⁵ TUTU, D. (2003). *No Future Without Forgiveness* (Version 2.). 6. or.

¹⁴⁶ *Ibidem.*, 7.or.

Barkamenaren bidez, birgizarteratzea lortzen da, baina inondik inora ere ez egitateak ahaztea, “bere historia ezagutzen ez duena, hura errepikatzera kondenatuta dagoelako¹⁴⁷”.

¹⁴⁷ RUIZ DE SANTAYANA J. *La vida de la razón o Fases del Progreso Humano*. 284.or.

7. BIBLIOGRAFIA

Doktrina

a) Liburu eta Monografiak

- DE GAMBOA TAPIAS, Camila. (2020). *La justicia restaurativa en la justicia transicional: Una reflexión general para el caso colombiano*. Bogota: Instituto Colombo Alemán para la Paz.
- DE GREIFF, Pablo. (2006). *Justice and Reparations. The Handbook of Reparations*. Oxford: Oxford University Press.
- Europar Batzordea, Liburu berdea. Errugabetasun presuntzioa. 2006ko apirilaren 26.
- GIZA ESKUBIDEEN BATZORDEA, Nazio Batuak. (2007). 32. *Behaketa orokorra: Artículo 14. El derecho a un juez imparcial y a la igualdad ante los tribunales y cortes de justicia*. CCPR/C/GC/32, 2007ko abuztuaren 23a.
- HASKELL, Leslie (Human Rights Watch). (2011 Maiatza). *Justice Compromised: The legacy of Rwanda's Community-based Gacaca courts*.
- HUYSE, Luc. (2003). *Reconciliation after violent conflict*. Stockholm: International Institute for Democracy and Electoral Assistance.
- KEYES, Elizabeth. (2003). *Accountability in the Aftermath of Rwanda's Genocide, in Accountability for Atrocities: National and International Responses*. Baltimore: University of Baltimore School of Law.
- MORENO VIDA, María Nieves. (2018). *El derecho a un proceso equitativo en el Convenio Europeo de Derechos Humanos*. Granada: Universidad de Granada.
- Penal Reform International. (2008). *Monitoring and Research Report on the Gacaca: Testimonies and evidence in the Gacaca Courts*.
- PICO Y JUNOY, Joan. (2012). *Las garantías constitucionales del proceso*. Barcelona: J.M Bosch Editor.
- RUIZ DE SANTAYANA, Jorge. (1906). *La vida de la razón o Fases del Progreso Humano*". Madril: Tecnos Editorial.
- ZEHR, Howard. (2007). *El pequeño libro de la justicia restaurativa*. Los pequeños Libros de Justicia y Construcción de Paz. Ameriketako Estatu Batuak: Good Books.

b) Aldizkarien artikuloak

- ADNANE RKIOUA, Abdelhamid. (2011). *Los derechos sociales en la carta africana de los derechos humanos y de los pueblos*. Lex social: Revista de derechos sociales. Sevilla: Universidad Pablo de Olavide.

- BORRAJO INIESTA, Ignacio. (2000) *El derecho a la tutela sin indefensión (art 24.1 CE)*. Cuadernos de Derecho Público, núm. 10 (mayo-agosto, 2000). Madrid: Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala.
- DÍEZ-PICAZO GIMÉNEZ, Ignacio. (2000): *Reflexiones sobre algunas facetas del derecho fundamental a la tutela judicial efectiva*. Cuadernos de Derecho Público, núm. 10 (mayo-agosto, 2000). Madrid: Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala.
- DOMÍNGUEZ MENDOZA, Karen Giselt; ROSERO GONZÁLEZ, Tatiana Andrea. (2017). *Justicia sobre la hierba. Tribunales Gacaca, lecciones de reconciliación para Colombia*. Estudios Políticos. Medellín: Universidad de Antioquia, Instituto de Estudios Políticos.
- DRUMBL, Mark. (2020). *Post genocide justice in Rwanda*. Journal of International Peacekeeping 247.
- GHASSAN FAKHOURY, Amer. (2018). *Gacaca Courts in the Light of Public International Law: Bold step in Achieving Reconciliation and Justice in Rwanda*. International Journal of African and Asian Studies, Vol. 47.
- GOLDSTEIN BOLOCAN, Matteo. (2004). *Ruandan Gacaca: An experiment in Transicional Justice*. Journal of Dispute Resolution. Missouri: University of Missouri School of Law.
- HASKELL, Leslie; WALDORF, Lars. (2011). *The Impunity Gap of the International Criminal Tribunal for Rwanda: Causes and Consequences*. Hastings International and Comparative Law Review. San Frantzisko: University of California College of the Law.
- JOIREMAN, Sandra; COREY, Allison. (2004). *Retributive Justice: The Gacaca Process in Rwanda*. Political Science Faculty Publications, 114. Richmond: University of Richmond.
- PARENT, Genevieve. (2010). *Reconciliation and Justice after Genocide: A Theoretical Exploration*. Genocide Studies and Prevention: An International Journal, Vol 5. The International Asociation of Genocide Scholars.
- SANCHEZ RUBIO, Ma Aquilina. (2003). *Derecho a la tutela judicial efectiva: Prohibición de sufrir indefensión y su tratamiento por el tribunal constitucional*. Anuario de la Facultad de Derecho. Badajoz: Universidad de Extremadura.
- WENZEL, Michael; PLATOW, Michael. J.; OKIMOTO, Tyler. G.; FEATHER, Norman.T. (2007). *Retributive and Restorative Justice*. Law and Human Behavior, 32. Ameriketako Estatu Batuak: American Psychology-Law Society.

- YEO, Grace. (2020). *Restorative Justice as Response to Atrocity: Profound or Merely Pragmatic?*. Britania Handia: E-International Relations.

Araudia

a) Nazioarteko araudia

- Europar Parlamentu eta Batzordeko 2013/48 Zuzentaraua, 2013ko urriaren 22koa.
- Europar Parlamentu eta Batzordeko 2016/343 Zuzentaraua, 2016ko martxoaren 9koa.
- Giza Eskubideak eta Oinarritzko Askatasunak Babesteko Hitzarmenaren 7. Protokoloa, 1984ko azaroaren 22koa.
- Giza Eskubideei eta Herrien Eskubideei Buruzko Afrikako Gutuna, 1981eko uztailaren 27koa
- Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, 1948ko abenduaren 10ekoa.
- 16/2004 Legea, 2004ko ekainaren 17koa, Gacacako auzitegien antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua ezartzearen ingurukoa.
- Ruandar Errepublikaren Konstituzioa, 1990eko maiatzaren 30ekoa.
- Ruandar Errepublikaren Konstituzioa, 2003ko maiatzaren 26koa.
- Ruandar Nazioarteko Gorte Penalaren Estatutua, 1944ko azaroaren 8koa. Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren 955 (1994) Ebazpena.

b) Barne araudia

- Espainiar Konstituzioa, 1978ko abenduaren 29koa.

Jurisprudentzia

a) Nazioarteko auzitegiak

- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 2018/174869. 2018ko ekainaren 12koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 1/2022, urtarrilaren 18koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 99/2019, uztailaren 18koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 81/2022, 2022ko ekainaren 16koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 2015/18. 2015eko urtarrilaren 27koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 129/2000, maiatzaren 2koa.
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren Epaia 2016/30. 2016ko otsailaren 23koa.

b) Barne auzitegiak

- **Auzitegi Gorena.**

- Auzitegi Gorenaren Epaia 821/2016, 2016ko Azaroaren 2koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia, 580/2014, uztailaren 21koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia, 16/2012, otsailaren 13koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia, 426/2016, 2016ko maiatzaren 19koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia, 1674/2002. 2002ko urriaren 10koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia 609/2019, abenduaren 11koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia, 598/2021, uztailaren 7koa.
- Auzitegi Gorenaren Epaia 2014/487 ekainaren 9koa.

- **Auzitegi Konstituzionala.**

- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia, 113/1980 Errekurtsoa, 1981eko uztailaren 28koa.
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia, 127/2000, maiatzaren 16koa.
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 177/1999. 1999ko urriaren 11koa.
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 2/2003, urtarrilaren 16koa.
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 14/1992, 1992ko otsailaren 10koa.
- Auzitegi Konstituzionalaren Epaia 155/2002, 2022ko utzailaren 22koa.

Bestelako Iturriak

- Editorial Colex. (d.g). *El derecho a la presunción de inocencia en el proceso penal*. Iberley.
<https://www.iberley.es/temas/derecho-presuncion-inocencia-proceso-penal-63108>
- El País. (1994). *Frente Patriótico Ruandés empieza a ocupar la “zona humanitaria segura”*.
- France 24. (2019). *Genocidio en Ruanda: ¿Por qué y cómo sucedieron los hechos?*
<https://www.france24.com/es/20190406-genocidio-ruanda-25-anos-africa>
- FUERTES Javier. (d.g.). “Derecho a la defensa y a la asistencia de letrado”. Vlex.
<https://vlex.es/vid/derecho-defensa-asistencia-letrado-899696529>
- Museo Memoria y Tolerancia. (d.g). *La colonización y el orden racial*.
https://www.myt.org.mx/memoria_url/colonizacion-establecimiento-orden-racial#:~:text=En%201932%2C%20las%20autoridades%20belgas,las%20relaciones%20dentro%20de%20Ruanda.

- ORTEGA GUTIÉRREZ, David. (2003). “*Sinopsis artículo 24 - Constitución española.*”
<https://app.congreso.es/consti/constitucion/indice/sinopsis/sinopsis.jsp?art=24&tipo=2>
- Ranter, H. (d. g.). *ASN Aircraft Accident Dassault Falcon 50 9XR-NN Kigali Airport (KGL).* <http://aviation-safety.net/database/record.php?id=19940406-1>
- SOSA NAVARRO, Marta. (2014) “*África y la justicia transicional: Los tribunales “Gacaca” de Ruanda.*”
<https://umoya.org/2014/02/06/africa-y-la-justicia-transicional-los-tribunales-gacaca-d-e-ruanda/>
- TUTU, Desmond. (2003). *No Future Without Forgiveness* (Version 2.).
- World Bank Open Data. (d.g). *World Bank Open Data.*
https://datos.bancomundial.org/indicador/SP.POP.TOTL?name_desc=true&locations=RW